



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 2a

20 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzekoa

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001eko abenduaren 12ko 125. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 8, 9, 14, 17, 19, 20, 23, 26, 49, 55, 57 eta 67 zenbakikoak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 11, 32, 34, 62 eta 68 zenbakikoak, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 6, 13, 16, 54, 56, 66 eta 84 zenbakikoak, eta 80 zenbakiko zuzenketa gehitutako xedapen gehigarria kentzeko boto partikularra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 7, 10, 12, 15, 21, 22, 24, 25, 64 eta 65 zenbakikoak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alkderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2002ko otsailaren 13ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Foru Lege proiektua, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzekoa

Foru Lege proiektu honek xede du tributuen arloko neurri arau-emaileak abian jartzea Nafarroako ekonomiaren hazkundera sustatu eta errazteko, horrek ondorio onuragarriak izanen baititu enplegua eta herritarren gizarte ongizatea gehitzeari dagokionez. Izan ere, helburua da inbertsio ondasunen eskaria piztea, hazkundera indartu eta ziklo ekonomikoa luzatzeko, bai eta enpresen arteko lehiakortasuna bultzatzeko ere, enpresa eta kontsumitzaile pribatuen konfidantza berreskuratuz, nazioarteko azken gertakariak eragina izan baitute haiengan.

Bestalde, arauen aplikazioaren ondorioz lortutako esperientziak egoki jo du arauak moldatzea gertatzen diren aldaketa sozial eta ekonomikoen arabera.

Europako Batasuneko araudiak eta euroaren erabilera egokitzeko prozesuak areagotu dute tributuen arloko arauetan egokitzapen teknikoak egiteko komenigarritasuna. Horretaz gain, pizgarri fiskalak eman nahi zaizkie talde batzuei eta interesekoak diren egoerei.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean zuzendu da 36. artikuluko 2. idatz-zatia, tributuen arloko ordezkari kontzeptua hobeki erregulatzeko, orain arte gabezia batzuk baitzuten. Bestetik, hemendik aurrera, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean araututako prozeduretan ordezkari egiazteko aurkeztu beharreko agiri normalizatuak baliogarriak izanen dira Administrazioak onetsi baditu.

37. artikuluko 2. idatz-zatia eta 38. artikulua ere aldatu dira, Estatuko Administrazio nagusiaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko

Lankidetzaren Batzordeak hartutako konpromisoak betetzeko.

Aldaketa garrantzitsu bat egin da zehapenen preskripzioa etetearen gainean. Tributu zehapenak jartzeko eta arau-hauslearen zerga egoera egiaztatzea eta aztertzeko bi espediente ezberdin izan beharrik zailak bat sortarazten zuten orain arte: egiaztapen espedienteari hasiera emateak zehapenak ezartzeko epean preskripzioa eteten ote zuten. Aldeko jarrera hartu da, argi xedatu baita aurreko jarduketek ere, hots, erregulatu eta egiaztatzeak, geldituko dutela zehapen espedienteak.

Tributuen kudeaketako gizarte lankidetzaren hobetuko da, aitorpenak, komunikazioak eta bestelako agiriak telematika bidez aurkezteko aukera egon den delako.

Tributu egintzen jakinarazpena eta tributu zorren ordainarazpena hein batean aldatu dira, tributuen arloko administrazioak bestelako ondasun edo eskubideak bahitu eta besterentzen ahalko baititu, duten bermea betearazi aurretik, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Bermea eta bermatutako zorra bat ez bada toz.

b) Zergadunak eskatuta, eta horretarako ondasun nahikoak dituela adierazten bada.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen aldaketei dagokienez, 55. artikuluko 3, 4 eta 5. idatz-zatiak moldatu dira, gutxiengo pertsonal eta familiarrak murriztu eta eurotan jartzeko. Horretaz gain, agindua zuzendu da teknikoki, hirurogeita bost urtetik goitikoen gaineko aipamenak berdindu baitira, hau da, ez du garrantzirik hirurogeita bost urte izan edo gehiago izatea, ez gutxiengo pertsonala edo familiarra kalkulatzeko, ez eta seme-alabak, aurreko ahaideak edo ezgaituak zaintzeagatikoen kenkarirako ere.

Batez besteko karga-tasa ere aldatu da. Teknikoki zuzenagotzat jo da batez besteko karga-tasa likidazio oinarriarekin lotzea, zergaren egitura berria kontuan hartuz, oinarri baititu errenta esku-ragarria eta zerga oinarrietako murrizketak. Batez besteko karga-tasaren definizioa aldatzeak onurak ekarriko ditu lan etekinak lortzen dituztenen errenta baxuetan egiten den lanarengatikoen kenkari aplikazioan.

62. artikuluko 5. idatz-zatia, lanarengatikoen kenkari buruzkoa, aldatu egin da. Moldaketa honek langile elbarrien egoera hobetzea du helburu. Horretarako, lanarengatikoen kenkari hori 902 eurotara handitu da eta gainerako langileendako

mugapena ezabatu da. Horren arabera, kenkariaren zenbatekoak ezin zuten gainditu batez besteko karta-tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza.

3. artikuluko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikuluko batzuk aldatu ditu. Enpresa txikien eskura dauden ibilgetu materialeko osagai berriak ezarritako epean baino lehenago amortizatzen ahalko dira. Halaber, azkarrago amortizatzeko araubide hori bateragarria izanen da bestelako hoberi fiskalekin, eta ez da kontabilitatean egotzi behar.

16. artikuluko 1.d) idatz-zatia aldatu da, zergaldi bakoitzeko gehieneko muga, bi milioi pezetakoa baitzen, kentzeko, banakako balioa 600 eurotik gorakoa ez duten ibilgetu materialeko osagaiak amortizatzeko aukerari dagokionez.

Mantenduko da salbuespena berrinbertsioarengatik, ibilgetu material edo ez-materialeko osagaien kasuan, eta kuota osorako kenkari bat ezarriko da balore eskualdaketan berrinbertsioa egiten bada. Kenkari horrek ordeztuko du orain arteko gerokotzeko araubidea.

Likidazio oinarri negatiboari dagokienez, aldaketa garrantzitsuak egin dira. Izan ere, likidazio oinarri positiboak likidazio oinarri negatiboaren bidez murrizteko, azken hauek likidatu edo autolikidatu egin behar izan dira. Beraz, aitorpenik egin ez dutenek ezin izanen dituzte beren oinarri negatiboak murriztu, likidazioaren xede ez badira behintzat. Kenkariak aplikatzeko zergaldiak zabaldu dira hamar urtetik hamabostera.

Inbertsioetarako Erreserba Berezia dela-eta, sozietateen aukera erreserba horretan esku hartzeko ala ez, egiten zuten jardueraren pean zegoen. Muga hori deuseztu da, aukera eman nahi zaielako enpresa guztiei, haien jardueraren edozein dela ere, Inbertsioetarako Erreserba Berezian sartzeko. Ondasunek ustiapen edo jardueraren ekonomiko bati lotuak behar dute egon. Horrek xede du balore eta ondasunak izateko sozietateak baztertzea, gardentasun fiskalaren araubideari jarraituz tributatzeko baitute.

Enpresek enplegu pentsioen planetan egiten dituzten kontribuzioetatik % 10 kenduko da, 27.000 euro baino gutxiagoko lansaria duten langileendako.

Urteko lansari gordinak 27.000 euro edo gehiagokoak badira, kenkaria aplikatuko zaio 27.000 euroko zenbatekoari dagokion enpresa-kontribuzioaren zati proportzionalari.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen X. tituluko VIII. kapituluako artikuluetan zenbait aldaketa egin da. Kapitulu horrek helburua du erregulatzea kontsolidazio fiskaleko araubidea, lehen "sozietate multzoarena" deitzen zena, alegia.

Hona hemen aldaketa garrantzitsuenak:

a) Araubidearen izena: "Kontsolidazio fiskaleko araubidea" deituko zaio.

b) Zerga taldeak izena izanen dute, "sozietate multzoak" izan beharrean.

c) Espainiakoak ez diren entitateek Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrak sozietate nagusizat hartzen ahalko dira, baldin eta partaidetza badaukate beste sozietate batzuetan.

d) Gutxieneko partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, % 90etik % 75era murriztu da.

Inbertsioetarako Erreserba Berezia luzatzea erabaki da. Subjektu pasiboek egiten ahalko dituzte Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. tituluko XI. kapituluaren 2. atalean aipatutako Erreserba Berezirako dotazioak, betiere 2002ko urtarrilaren 1etik aitzinako lehen bi ekitaldietan lortutako kontabilitate etekin kontura badira.

Balio Erantsiari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean bina xedapen gehigarri erantsi dira.

Foru araudia ahalik eta lasterren promulgatu eta lurralde komunean indarra duten arauak ahalik eta denbora laburrenean aplikatzeko, Nafarroako Gobernuak baimena izanen du behar diren behin-behineko arauak emateko Ekonomia Hitzarmentean ezarritakoa bete dadin. Arau horiek Nafarroako Gobernuak zuzenean onetsiko ditu behin-behinekoz eta Nafarroako Parlamentura igorriko, erabakia hartu eta hamar egunetan, behin betikoz onets ditzaten.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez, hiri finken errentamenduetan tributu zorra eskudirutan besterik ezin izanen da pagatu, baztertu baita egun dagoen aukera, efektu tinbredunen bidez ordaintzeko. Era berean, zergaren eskala eurotara pasatu da.

Dokumentu notarialetako tributu-zorra aldatu da, kuota finkoa, hots, notarioek paper tinbreduna erabiltzea dakarrena, hemendik aurrera orrika pagatuko da eta ez pleguka. Halaber, tasa hori

eurotan finkatu da. Zerga protestoko aktek 100eko 0,50eko tasan emanen dute zerga.

Truke letren eta igorpen eginkizuna duten dokumentuen tributu zorra dela-eta, karga tasen eskala eurotan finkatu da.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez, 1970eko apirilaren 10eko arauk erregultzen zituzten "mortis causa" eta "inter vivos" eskuraketak, edozein titulu bidez egiten zirela ere, kostubidezkoa zein irabaziduna. Horiak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorren esparrukoak ziren. Ondoren, 1981ean, onetsi zen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga erregulatzeako araua, eta zerga autonomo bilakatu zen. Baina egoera horrek eragozten du bi zerga horien arteko bereizketa. Horregatik, tributuen kudeaketan Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga araudi baten premian dago, "mortis causa" eskurapenez gain, "inter vivos" motako dohaintzez eta irabazi asmoz egiten diren gainerako eskualdatzeez modu argian arduratzeko. Bestalde, % 0,8ko tipoa mantenduta, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako exentzioek zerga horren beraren barruan tipo espezifiko gisa tributatzea nahi da. Beraz, % 0,8ko karga-tasa hori Egintza Juridiko Dokumentatuen kontzeptutik kanpo geldituko litzateke. Neurrien Lege Proiektuari egindako gainontzeko aldaketak, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoak, testu bategin baten prestaketa erraztera bideratu dira, araudi ordenatua, sistematizatua eta osotua izateko.

Helburuetako bat ere bada araudi berri horren bidez zergaren autolikidazioa ezartzea, zerga betebeharrak norberak bere borondatez betetzea errazteko, eta, bide batez, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritako prozedurei egokitzeko.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifetan aldaketa batzuk egin dira, korrespondentziaren mezularitza, mandataritza eta hura banatu eta erabiltzeko zerbitzuen gainean, bai eta kontu ikuskari eta kontuetako zentsore zinpekoen gainean ere.

Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei dagokienez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak tituluak luzatzeko zuena gaurkotu egin da. Halaber, Herri-lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan tasa berri bat ezarri da kartografia zerbitzuetarako, eta Kontseilu Arau-emaielen zerbitzuen karga tasak gehienekotzat hartu dira, eta 2002tik

2005era bitarteko aldirako araubide iragankorra ezarri da haien gainean.

Fundazioen kasuan, likidazio oinarri negatibok konpentsazioaren xede izateko aldia luzatu da, orain urte gehiago dira eta.

Xedapen iragankor eta gehigarriek osatu egiten dute Foru Lege proiektua, erregulatzen baituzte lege iragankorretako alderdi batzuk eta Proiektuko artikulua gisa sartzetik ez duten bestelako kontzeptuak ere bai.

1. artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen artikulua hauek honela geldituko dira:

Bat. 36.2 artikulua

“2. Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haiek bertan behera uzteko, tributudun baten izenean eskubide bati uko egiteko, betebeharrak onartu edo aitortzeko, eta deboluzio edo ordainketak eskatzeko, ordezkaritza frogatu beharko da, zuzenbidearen arabera balioduna den edozein baliabide fidagarri erabiliz edo administrazio organo eskudunaren aurrean agertuz. Tramite hutseko egintzetarako ordezkaritza emantzat joko da.

Foru Lege honek arautzen dituen prozeduretan tributudunaren sinadura beharrezkoa bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da aurreko lerroaldean aipatutako baliabideren bat erabiliz. Helburu horretarako baliogarriak izanen dira tributuen arloko administrazioak onesten dituen agiri normalizatuak.”

Bi. 36. artikulua. 6. idatz-zatia erantsi da.

“6. Zerga kudeaketako gizarte lankidetzaren esparruan, edozein dokumentu bitarte telematikoen bidez aurkezten bada tributu administrazioaren aurrean, aurkezleak kasu bakoitzean behar den ordezkaritza izan beharko du. Tributu administrazioak eskatzen ahalko du edozein momentutan ordezkaritza horren egiaztatpena.”

Hiru. 37.2 artikulua.

“2. Helbide fiskala Nafarroan duten tributudunak beharturik daude helbide hori tributu administrazioari jakinaraztera. Tributudunak helbide fiskal hori deklaratu ez badu, bera titular duen edozein eraikin edo ustiategirena hartuko da halakotzat jakinarazpenak egiteko.”

Lau. 38. artikuluko lehen lerroaldea.

“Behar bezala justifikaturiko aparteko kasuetan, tributu administrazioak zilegi izanen du helbi-

de fiskala Nafarroaz kanpo duten subjektu pasibo-
ei Nafarroan helbidea duen ordezkari bat izenda-
tzeko eskatzea, harekin izateko harremanak.”

Bost. 57.1.a) artikulua.

“a) Subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean dela egindako edozein Administrazio egintza dela medio, zergagai bakoitzak sortu duen tributua ezagutu, erregulatu, ikuskatu, segurtatu, egiaztatu, likidatu eta biltzea helburu.

Halaber, zehapenak ezartzeko iraungitze epeak etengo dituzte, arestian aipatutako jardueren gain, dagokien zehapen prozedura hasteak ere.”

Sei. 69.4 artikulua.

“4. Urtebeterainoko epean etenik izatea enplegu edo kargu publikoetako jarduna.”

Zazpi. 70.1.a) artikulua.

“a) Nafarroako Gobernuak, zehapen horiek honakoetakoak badira: enplegu edo kargu publikoetan jardutea etetea, hobari edo pizgarri fiskalak izateko eskubidea galtzea, subentzio edo dirulaguntza publikoak izateko aukera galtzea, edo Foru Komunitateko Administrazioarekin edo beste erakunde publiko batekin kontratuak egiteko debekua.”

Zortzi. 90.1 artikuluan f) letra erantsi da.

“f) Zerga aitortpenak, komunikazioak eta beste-lako agiriak telematika bidez aurkeztea.”

Bederatzi. 99.1 artikuluan hirugarren lerroaldea erantsi da.

“Tributu administrazioak ezarriko ditu jakinarazpenak bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen bidez egiteko baldintzak, gisa horretako jakinarazpenei buruzko araudiarekin bat.”

Hamar. 99. artikuluan 5. idatz-zatia erantsi da.

“5. Jakinarazpena bitarteko telematikoen bidez egin ahal izanen da baldin eta interesdunak bitarteko hori lehenetsi badu edo horren erabilera berriaz baimendu badu eta haren helbide elektronikoa –zeinak erregelamendu bidez ezarritako baldintzak bete behar baititu– identifikatu badu. Halako kasuetan, jakinarazpena lege ondorioetarako betetzat emanen da helbide elektronikoa haren edukia eskuratzen denean. Baldin eta, jakinarazpena helbide elektronikora heldu dela jasota geratu arren, haren edukia eskuratu gabe hamar egun naturaleko epea iragatenbada, jakinarazpena errefusatutzat joko da, artikulua honetako 3. idatz-zatian ezarritako ondorioekin, salbu eta ofizioz nahiz hartzaileak hala eskatuta hura eskura-

tzeko ezintasun tekniko edo materiala egiaztatzen bada.”

Hamaika. 113.3 artikuluko bigarren lerroaldea.

“Dena den, tributudunak aurkeztu beharko ditu, horrela eskatzen bazaio, tributu arauetan ezarritako erregistro eta dokumentuak, tributu administrazioak bidezkoak diren egiaztapenak egin ahal ditzan.”

Hamabi. 120. artikulua. Bigarren lerroaldea erantsi da.

“Dena den, tributu administrazioak, bermea bete aurretik, beste ondasun edo eskubide batzuk bahitu edo besterentzen ahalko ditu, baldin eta berme hori eta bermatutako zorra bat ez badatoz, edo tributudunak eskatzen badu, horretarako ondasun nahikoak dituela adieraziz. Kasu haue-tan, emandako bermeak ez du eraginik izanen bahiketek aseguratutako zatian.”

2. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen artikulua batzuk, ondotik heldu direnak, honela geldituko dira:

Bat. 7.g) artikulua.

“g) Literatura, arte eta zientzietako sari garrantzitsuak, erregelamendu bidez ezarriko baldintzetan, bai eta modalitate diferenteetako “Vianako Printzea” eta “Asturietako Printzea” sariak ere.

Bi. 7.n) artikulua.

“n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, honako baldintza hauei jarraikiz:

1. Lan horiek egitea Espainiatik kanpo aritzen den enpresa edo entitate batendako, edo atzerrian ezarritako establezimendu iragankor batendako.

2. Lan egiten den herrialdean zerga honen antzeko edo izaera bereko beste zerga bat aplikatzea, eta erregelamendu bidez zerga-paradisutzat jotzen den estatu edo herrialdea ez izatea.

Zerga-salbuespena, gehienez ere, 60.101,21 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko hori aldatzen ahalko da erregelamenduaren bidez.

Atzerrian aritzen diren subjektu pasiboaren kasuan, salbuespen hori ez da bateragarria izanen tributatu beharretik baztertutako soberakinen araubidearekin (Zerga honi buruzko erregelamenduaren 8.A).3.b) artikuluan ezarria), haren zenba-

tekoa edozein izanda ere. Subjektu pasiboak soberakinen araubidearen aplikazioa hautatzen ahalko du salbuespen horren ordez.”

Hiru. 7.p) artikuluko lehen lerroaldea.

“p) Administrazio publikoek pagatutako kalteordainak, zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz jasandako kalte pertsonalengatik, baldin eta kalteordain horiek ezarri badira Ondareko erantzukizunaren arloan Administrazio Publikoen Prozeduren Erregelamendua arautzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan agindutako prozeduren arabera.”

Lau. 10. artikulua. Bi lerroalde berri gehitu dira.

“Subjektu pasiboak izanen dira nazionalitate espainoleko pertsona fisikoak, haien ezkontideak, legalki bereizita ez badaude, eta seme-alaba adingabeak, Nafarroako foru araudiaren menpekoak izan ondoren, atzerrira bizitzera joan direnak, Espainiako misio diplomatikoetako kideak, Espainiako kontsul bulegoetako kideak, Estatuaren kargu edo lanpostu ofizial baten titularrak nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako delegazio edo ordezkaritza iragankorretako kide gisa, edo jarduneko funtzionarioak izateagatik, atzerrian diplomatikoen edo kontsulen arlokoa ez den kargu edo lanpostu ofiziala betetzen badute.

Halaber, subjektu pasibotzat hartuko dira lehen Nafarroako foru araudiak gobernatzen zituen nazionalitate espainoleko pertsona fisikoak zirenak baina orain beren egoitza fiskala zerga-paradisutzat jotzen den estatu edo herrialde batean dutenak. Lerroalde honetako araua aplikatuko da egoitza-aldaketa egiten den zergaldian eta hurrengo lau zergaldietan.”

Bost. 26. artikuluko lehen lerroaldea.

“Higiezinak errentan edo azpi-errentan eman edo hauek erabili edo gozatzeko eskubidea ezkontideari edo hirugarren gradura arteko ahai-deei, ezkontza bidezkoiei barne, utzi baldin bazaie, etekin garbia ez da Lur Kontribuzioaren edo Ondasun Higikorren gaineko Zergaren eraginetarako higiezinak duen balio katastralaren ehuneko bi baino txikiagoa izanen; higiezinak balio katastralik ez badu, etekin garbia ez da erosketaren balioaren ehuneko bi baino txikiagoa izanen.”

Sei. 34.7 artikulua.

“7. Zerga honen subjektu pasiboari, enpresa- edo lanbide-jarduerak betetzen badituzte, eta haien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehazten badute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 14.7 artikuluan xedatuta-

koa aplikatuko zaie. Negozio kopuruaren zenbateko garbia zehazteko, kontuan hartuko da subjektu pasiboak egindako enpresa- eta lanbide-jardueren multzoa.”

Zazpi. 43.3 artikulua.

“3. Artikulu honen 1. idatz-zatiko d) eta e) letretan xedatutakoak ez du galaraziko fusio, eszizio, aktiboen ekarpen eta balore trukaketen araubide berezian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen X. tituluaren IX. kapituluaren araututakoa.”

Zortzi. 55.3, 4 eta 5 artikulua.

“3. Gutxiengo pertsonalarengatik.

Oro har, gutxiengo pertsonala subjektu pasibo bakoitzeko 3.440 eurokoa izanen da urtean.

Zenbateko hori 3.985 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu; 5.215 eurokoa, ezgaitua bada eta egiaztatzen badu bere minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dela; eta 7.050 eurokoa, minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

4. Gutxiengo familiarrengatik.

1. Gutxiengo familiarra honako hau izanen da:

a) 615 euro urtean, hirurogei urte edo gehiagoko aurreko ahaide bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi, haren kargura egon eta urteko lanbidearteko gutxiengo soldatetik goragoko errentarik, salbuetsiak barne, jasotzen ez badu.

Aurreko ahaideen familia-unitateen urteko errentak, salbuetsiak barne, gutxiengo soldata horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, kenkaria 615 eurokoa izanen da aurreko bakoitzeko.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi bada eta urteko lanbidearteko oinarrizko soldatetik goragoko errentarik, salbuetsiak barne, jasotzen ez badu:

– 1.535 euro urtean, lehen, bigarren eta hirugarrenengatik.

– 2.455 euro urtean laugarren eta hurrengotako.

Zenbateko horiek aplikatuko dira ondorengo ezkongabe bakoitzeko ere, edozein adinetakoa izanik, eskubidea badu c) letran aurreikusitako zenbatekoak jasotzeko.

c) Erregelamendu bidez ezartzen den graduan ezgaituak direnean (minusbaliotasun maila %

33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa), subjektu pasibo bakoitzeko eta, kasuan kasu, haren eskuko ondorengo edo aurreko bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik eta betiere azken horien urteko errentak, kasuan kasuko zergaldian, hemezortzi urtez goitikoendako bermatzen den urteko lanbidearteko oinarrizko soldata baino gutxiagokoak badira, arestiko letretan xedatutakoari jarraituz bidezko diren kenkariez gain: 1.840 euro urteko. Zenbateko hori 3.680 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, arestiko lerroaldean aurreikusitako errentak gutxiengo soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoa betetzeko, ondorengo sailkapen berean sartuko dira aplikagarri den legedian ezarritako terminoetan egindako tutoretza, adopzio eta harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak.

d) Subjektu pasiboak 1.840 euro murriztu ahal izanen ditu hirurogeita bost urte edo gehiagoko senide bakoitzeko, baldin eta pertsona lagundutzat jota badago Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du kenketa eta, halakorik egon ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak.

Murrizketa ezin izanen da egin lagundutako pertsonaren senideren batek egiten badu idatzzati honetako c) letrako kenkaria gutxiengo familiarrengatik.

Pertsona lagundutzat jotzea egiaztatu egin beharko da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak ekitaldi bakoitzerako emandako ziurtagiriarekin.

2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxiengo familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

Dena den, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengo ahaidearekin edo lagundutako pertsonarekin, gertueneko mailako ahaideak soilik izanen du kenkari familiarra izateko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu urteko lanbidearteko oinarrizko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak barne, kenkaria hurrengo mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxiengo pertsonal eta familiarra izanen da aurreko idatz-zatien arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batuketa.

5. Ondorengoak, aurrekoak eta pertsona ez-gaituak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako zenbatekoak Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioengatik familiaren etxean aritzen diren pertsonekin sinaturiko kontratuen ondorioz. Langile horiek hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak zainduko dituzte, bai eta subjektu pasiboari artikuluko 4. idatz-zatiaren a), c) eta d) letretako gutxiengo familiarren aplikazioarako eskubidea ematen dioten pertsonak ere.

Kenkari hori aplikatzen ahalko da, orobat, subjektu pasiboa bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogei urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen bada bere minusbalotasun maila % 65ekoa edo gehiagokoa dela.”

Bederatzi. 57. artikulua.

“57. artikulua. Likidazio oinarri berezia.

Likidazio oinarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati bereziari aplikatuko zaio 55. artikuluko 6. idatz-zatiko 2. erregelaren aipatzen den kenkaria, hala egokitzen bada.”

Hamar. 59.2 artikulua.

“2. Batez besteko karga tasa orokorra kalkulatzeko, aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatu ondoren egokitzen den kuota zatitu beharko dugu likidazio oinarri orokorrarekin, eta zatidura hori ehunekin biderkatu. Batez besteko karga tasa bi hamarrenekin emanen da.”

Hamaika. 62.3 artikulua.

“3. Kenkariak enpresa- edo lanbide-jarduere-tan.

Zerga honen subjektu pasiboari, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauetan enpresa inbertsiorako ezarriarik edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatzen ahalko zaizkie, kenkariaren portzentajea eta mugak berdinak direlarik. Salbuespena abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 70 bis artikuluan ezarritako kenkaria izanen da.

Hala ere, pizgarri horiek, erregelamendu bidez hala ezartzen denean baizik ez zaizkie aplikatzen ahalko zerga-oinarrien zenbatespen objektiboaren araubidearen menpeko subjektu pasiboari, araubide horren ezaugarri eta beharkizun formalak kontuan harturik.

Hamabi. 62.5 artikulua.

“5. Lanarengatiko kenkariak.

Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek 571 euro kendu ahal izanen dituzte.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu 59. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karga tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza.

Lan etekinak dituzten subjektu pasiboaren kasuan, % 33 edo gehiagoko minusbalotasun maila dutela egiaztatzen badute, lehen lerroaldeko kenkaria 902 eurokoa izanen da, eta ez zaie aplikatuko bigarren lerroaldean ezarritako muga.”

Hamahiru. 66.c) artikulua.

“c) Zerga gardentasuneko araubidearen pean dauden entitateek Sozietateen gaineko Zergaren bidez ordaindutako kuota, bai eta entitate horiei egotzi zaizkien kuota ere.

Kuota horiek eta haiei dagozkien egotzitako konturako ordainketek hau izanen dute gehienezko muga: egotzitako likidazio oinarriari Foru Lege honen 59. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karga tasa aplikatzearen emaitza, ondoko kasu hauetan:

1. Foru Lege honen 47. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letrako sozietate gardenetakoak badira, edo artikuluko 1. idatz-zati bereko b) eta c) letretakoak, non eta bigarren kasu honetan egozpena ez zaien egiten oso-osorik ondoko pertsonen: sozietate gardenaren etekinen sortzaile diren lanbide-jarduerekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten pertsona fisikoei, edo sozietate gardenaren etekinen sortzaile diren arte edo kirol jarduketekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten pertsona fisikoei.

2. Foru Lege honen 59. artikuluko 2. idatz-zatiko karga-tasaren batez bestekoa, egotzitako likidazio oinarriari egotzi beharrekoa, sozietate gardenendako Sozietateen gaineko Zergaren ezarritako tipo eraginkorra baino txikiagoa izatea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 74 eta 97. artikuluetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz sozietate gardeneari itzuli ez zaien zenbatekoari ez zaio aplikatuko aurreko lerroaldeetako muga.

Horretarako, Sozietateen gaineko Zergaren tasa eraginkorra honela kalkulatu da: kuota osoa ken hobari eta kenkariaren zenbatekoa; horren emaitza zati likidazio oinarria, eta zatiketaren emaitza bider ehun.”

Hamalau. 71.1.c) artikulua.

“c) Legezko banantzea ematen denetan edo ezkontza-loturarik edo bikote egonkorrik ez dagoenean, famili unitatea gurasoetako batek eta harekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena izanen da, baldin eta aurreko idatz-zatietako baldintzak betetzen badituzte.”

Hamabost. 81.3.c) artikulua.

“c) Nekazaritza, abeltzaintza edo oihangintza-ko jardueren etekinak.”

Hamasei. Hamabigarren xedapen iragankorra erantsi da.

“Hamabigarrena. Salbuespenak kalte pertsonalengatik.”

Foru Lege honen 7. artikulua p) letrako lehen leerroialdea, aldatu baita, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan aplikatuko da.”

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2002ko urtarrilaren 1etik aurreragoko zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honela geldituko dira:

Bat. 11.1.b).b') artikulua.

“b) Kapital-arriskuko fondoak urtarrilaren 5eko 1/1999 Legeak arautzen ditu, hots, Arrisku-kapitaleko sozietateak eta haien entitate kudeatzaileen gainekoak arautzen dituen horrek.”

Bi. (KENDUTA).

Hiru. 14. artikuluan 7. zenbakiko idatz-zatia erantsi da.

“7. Foru lege honetako 50.1.b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren zergaldian enpresa txikien zerbitzura jarritako ibilgetu materialeko elementu berriak amortizatzen ahalko dira koefiziente honen arabera: legeak onetsitako amortizazio tauletan aurreikusitako amortizazio koefiziente gehienekoa 1,5 zifraz biderkatzearen emaitza.

Enpresa txikitat hartuko da foru lege honetako 50.1.b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen.

Amortizazio araubide hori aplikatuko zaie, orobat, zergaldian zinpeturiko obra-kontratu baten bidez enkargatutako elementuei, baldin eta prest badaude epe hori amaitu eta hurrengo hamabi hilabetetan.

Araubide hori aplikatuko zaie, halaber, enpresak berak egin edo ekoiztutako ibilgetu materialeko elementuei.

Idatz-zati honetako amortizazio araubidea bateragarria izanen da edozein zerga onurarekin.

Idatz-zati honetan aurreikusitakoaren ondoriozko zenbateko amortizagarriak sortutako soberakinaren kenkariak, benetan egondako prezio jeistea dela-eta, ez dira galera eta irabazien kontuan egotzi beharrekoak izanen.

Idatz-zati honetan aurreikusitako amortizazio araubidea aplikatuz eginiko ondareko osagaien zerga amortizazioa bukatuz, zergaldietako zerga oinarria handitu beharko da ondoren egindako kontabilitate-amortizazioko zenbatekoetan. Ondareko osagaien eskualdatzeari dagokionez, kontabilitatearen arabera egotzitako zenbatekoei fiskalki amortizatutakoak kentzearen emaitza sartuko da. Kenketa horri ez zaio aplikatuko 36. artikuluan xedatutakoa.”

Lau. 16.1.d) artikulua.

“d) Ibilgetu materialaren elementuak, horien balio unitarioa 600 eurotik gorakoa ez bada.”

Bost. 17. artikuluan 5. zenbakiko idatz-zatia erantsi da.

“5. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak zehazten ahalko du, erregelamenduaren bidez ezartzen den prozeduraren arabera, artikulua honetako 3. zenbakiaren b) letran aipatutako data. Horretarako, kontuan hartuko ditu kontratazioaldiaren edo ondasunaren eraikuntzaren ezaugarriak, bai eta haren ustiapen ekonomikoaren berezitasunak ere, betiere zehaztapen horrek ondokoak eragiten ez baditu: ondasunaren ustiapen eraginkorretik sortutako zerga-oinarriaren kalkulua, haren eskualdaketa onoriozko errentak, Foru Lege honen X. tituluko IX. kapituluan ezarritako zergari buruzko araubide orokor edo araubide bereziko arauak zehaztu beharrekoak.”

Sei. 19.1.a) artikulua.

“a) Betebeharraren mugaegunetik sei hilabeteko epealdia iragan bada.”

Idatz-zati berria. 23.1 artikulua.

“1. Kengarriak izanen dira Pentsio plan eta fondoei buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legean arautzen diren pentsio planen sustatzaileen kontribuzioak. Kontribuzio horiek partaide bakoitzari egotziko zaizkio, norberari dagokion zatian, salbu eta 8/1987 Legeko 5.3.d) artikuluan xedatutakoa aplikatuz onuradunen alde era berezian egindakoak.”

Zazpi. 38.3 artikulua.

“3. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioaren pean jartzen ahalko dute, 30. artikulua araberekin.”

ra, 1. zenbakian ezarritako koefizienteaz bestelakoa aplikatzeko proposamena. Proposamena, subjektu pasiboak merkatuko baldintza normaletan pertsona edo erakunde lokabeengandik bereganatuko zukeen zorrean oinarrituko da.

Zenbaki honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko erregelamenduaren bidez zerga-paradisutzat hartutako herri edo lurraldeetan aritzen diren pertsona edo entitateek egiten dituzten eragiketetan, ez eta pertsona edo entitate horiekin egindakoe-tan ere.”

Zortzi. 40.1 eta 3. artikulua.

“1. Likidazio oinarri positiboa murrizten ahal da, aurreko hamabost urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Likidazio oinarri negatibo horiei behar den likidazioa edo autolikidazioa egin behar zaie.”

“3. Sortu berri diren entitateen likidazio oinarri negatiboek murrizten ahal dituzte jarraian datozen hurrengo hamabost urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga oinarriak, denbora hori kontatzen hasita zerga oinarria positiboa ateratzen den lehenbiziko zergaldiaren hasieratik.

Ez dira zenbaki honetan sartuko enpresa-ondorengotza edo jarraipen kasuak.”

Bederatzi. 42.1 artikulua.

“1. Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren dotazioaren zenbatekoak gutxienez 150.000 eurokoa izan beharko du, ekitaldi ekonomiko batean.

Era berean, Erreserba Berezia hornitu zuten etekinak izandako ekitaldia ixtean, entitatearen berezko baliabideak handitu beharko dira dotazioa egiten den kopuru berean eta ekitaldian. Gainera, hurrengo urteetan mantendu beharko dira, 44. artikuluko 4. zenbakiko bost urteko epea bete arte, salbu eta kontabilitateko galerek beherakada eragiten badute.

Aurreko lerroaldean aipatutako betebeharra dela-eta, ez dira entitatearen berezko baliabidez-tzat hartuko ekitaldi bakoitzeko emaitzak.”

Hamar. 43.1 artikuluko lehen lerroaldea.

“1. Ibilgetu materialeko elementu berriak izatea, lursailak izan ezik, ustiapen edo jarduera ekonomiko baten garapenari atxikiak.”

Hamaika. 59.5.b) artikuluko hirugarren lerroaldea kendu da.

Idatz-zati berria. Lerroalde bat gehitzen zaio 59.4.c) artikuluko a) letrari

“Mozkinetako partaidetzaren edo dibidenduen zenbatekoaren 100eko 18koa izanen da kenkaria

a) letra honetan aurreikusitako kasuan, baldin eta lehen partaidetzaren jabe izandako entitateek balore eskualdaketa berrinbertsioa egiteagatiko kenkaria aplikatu bazieten lortutako errentei eskualdatzeagatik.”

Idatz-zati berria. 59.4.c).b) artikulua, bigarren lerroaldea.

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan integraturiko zenbatekoa zer tributurengatik ordaindu zen, harexen zerga-tasa mozkinetako partaidetzari edo dibidenduari aplikatuzetik ateratzen den emaitza bera izanen da kenkaria b) letra honetan aurreikusitako kasuan, baina tasa horrek ezin izanen du gainditu aipatu zerga horretan zerga-oinarriaren zati berezian integraturiko ondare gehikuntzei dagokiena.”

Hamabi. 66.3.c) artikulua.

“c) Teknologia berria erostea, besteak beste, patenteak, lizentziak, “know-how”-ak eta diseinuak. Subjektu pasiboarekin loturiko pertsona edo entitatei ordaindutako zenbatekoek ez dute kenkarietarako eskubiderik emanen. Kontzeptu horri dagokion oinarria ezin izanen da urtean 500.000 eurotik goragokoa izan.”

Hamahiru. Artikulu berri bat gehitu da: 68 bis.

“68 bis artikulua. Kenkaria, enpresek enplegu pentsioen planetarako edo aurreikuspen sozialeko mutualitateetarako kontribuzioak egiteagatik, enpresaren aurreikuspen sozialeko tresnak badira.

Subjektu pasiboak langileendako emandako kontribuzioen 100eko 10 kentzen ahalko du kuota likidotik, langile horiei urteko 27.000 euro baino gutxiagoko lansari gordinak ematen badizkie eta kontribuzio horiek egiten badira enplegu pentsioen planetarako edo aurreikuspen sozialeko mutualitateetarako, hauek enpresaren aurreikuspen sozialeko tresnak direlarik. Kenkaria egiteko eskubidea izanen dute, orobat, ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arautu pentsio planen antzeko gorabeherak laguntzearen enpresak egin kontribuzioek, baita pentsio kausatuek ere, baldin eta Lege horrek xedatu bezala gauzatzen badira.

Langileek urteko 27.000 euroko edo gehiagoko lansari gordinak dituztenean, aurreko lerroaldean aipatu zenbatekoari dagozkion kontribuzioen zati proportzionalari aplikatuko zaio kenketa.

Kenkari hau ezin izanen zaie aplikatu Aseguru pribatuak antolatu eta gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 legeko hamalagarren eta hamabosgarren xedapen iragankorren babesean eta foru lege honetako lehen xedapen iraganko-

rraren babesean egindako kontribuzioei, ezta enplegua erregulatzeko espediente baten ondorioz langileekin hartutako konpromiso zehatzak egonez gero ere.”

Hamalau. Artikulu berri bat gehitu da: 70 bis.

“70 bis artikulua. Kenkaria, berrinbertsioagatik baloreen eskualdaketan.

1. Baloreen kostubidezko eskualdaketan lortutako errenta positiboan zenbatekoaren % 17 kenduko da kuota osotik, errenta horiek karga tasa orokorraren mendeko zerga-oinarrian sartuta badaude, eta betiere eskualdaketa horien dirua artikulu honetan xedatu bezala berrinbertitzen bada, hemen ezarritako baldintzak beterik. Artikulu honetan aurreikusten ez den orotarako, 36. artikuluan xedatua aplikatuko da, 36.4 zenbakia izan ezik.

Kenketa hau % 7koa eta % 2koa izanen da, zerga-oinarrian sartutako errentak % 25eko eta % 20ko tasak dituenean, hurrenez hurren.

2. Kenkaria izateko eskubidea dakarren errenta sortzen ahal duten balore eskualdatuak dira edonolako entitateen kapitalean eta fondoetan partaidetza izatearen erakusgarri direnak, entitate horiek bere kapital sozialaren % 5 baino txikiagoa ez den partaidetza ematen dutelarik, eta eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago izan direla eskuan.

Letra honetatik kanpo geratzen dira kapital sozialeko partaidetza ematen ez duten balioak.

Eskuan noiztik izan diren kalkulazean, ulertuko da balore eskualdatuak izan direla aspaldien lortu zirenak.

Partaidetza eskualdatuaren kalkulua zergaldia-ri dagokio.

3. Ondareko elementu hauetan berrinbertitu behar da kenkaria dakarren errenta sortu duen eskualdaketan lortutako zenbatekoa:

a) Ibilgetu materialekoak edo ez materialekoak, entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari lotuak.

b) Edonolako entitateen kapitalean eta fondoetan partaidetza izatearen erakusgarri diren balioak, entitate horiek bere kapital sozialaren % 5 baino txikiagoa ez den partaidetza ematen badute.

Letra honetatik kanpo geratzen dira kapital sozialeko partaidetza ematen ez duten balioak eta erregelamendu bitartez zerga paradisu gisara kalifikatu estatu edo lurraldeetan egoitza duten entita-

teen kapitalean eta fondoetan partaidetza izatearen erakusgarri direnak.

4. Edonolako entitateen kapitalean edo fondoetan partaidetza izatearen erakusgarri diren baloreen bi eskualdaketa edo gehiago egin direnean zergaldian, zergaldia bukatzen denean hasiko da kontatzen berrinbertitzeko epea.

5. Kenkariaren oinarria da artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatu baloreen eskualdaketan lortu errentaren zenbatekoa, zerga-oinarrian sartu dena. Kenkari horren oinarria kalkulatzeko ez besterako, eskualdaketa baliok ezin izanen du merkatuko balioa gainditu.

Eskualdaketan lortu errenta horretan ez da sartzen baloreen probisioen zenbatekoa, probisio-etarako dotazioek kenketa fiskala zekarten neurrian.

Kenkariaren oinarrian ez da sartuko eskualdaketan lortutako errentaren zati hau: ezarpen bikoi-zagatik kenkaria egiteko eskubidea sortu duena.

Baloreen eskualdaketan lortutako errentaren zati bat –etorkizunean erosi edo erabiliz gero gastu kengarriak sortzen dituen hain zuzen ere– kenkariaren oinarrian sartzen baldin bada, ez da gastu horien gaineko kenkaririk aplikatu ahal izanen, gastu horiek sortzen diren ekitaldia zein ere den. Subjektu pasiboak aukeran izanen du berrinbertsioagatik kenkarira edo gastu horiengatik kenkarira atxiki. Orduan, kenkari hori egiteko eskubidearen galera foru lege honetako 81.3 artikuluan ezarritako moduan arautuko da.

Eskualdaketan lortutako zenbatekoa baino kopuru txikiagoa berrinbertitzen bada, artikulu honetan ezarritako kenkaria egiteko eskubidea izanen da, eta kenkariaren oinarria izanen da berrinbertitu kopuruari proportzioz dagokion errentaren zatia.

6. Berrinbertitzen deneko zergaldiko kuota osoan aplikatuko da kenkaria. Eskualdaketa egin baino lehenago berrinbertitu bada, eskualdaketa egiten deneko zergaldiko kuota osoan aplikatuko da kenkaria.”

Hamabost. 71.7.4 artikulua

“4. Zerga-onura hauek lortu nahi dituzten entitateek ezarpen-plan bat aurkeztu beharko diote zerga-administrazioari, inbertsioen programa eta enplegu sorrera bilduko dituen, lanaldia nola berrantolatuko den eta lana nola banatuko den adierazten duen proiektu teknikoarekin batera. Aurreko 3. idatz-zatian aipatu hitzarmena indarrean sartzen den urtean hasten diren zergaldietan

eta hurrengo lau urteetan aplikatuko dira zenbaki honetan ezarritako onura fiskalak.”

Hamasei. 72.3 artikulua.

“3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak, salbu eta 63. artikuluan ezarritakoak –jarduera hasi arte, erregelamendu bidez zehazten diren entitate sortu berriek egindakoak– eta 66, 70 bis eta 71. artikuluetan ezarritakoak, ezin izanen dute barne ezarpen eta nazioarteko ezarpen bikoitzak saihesteko hobarrietan eta kenkarietan kuota osoa murriztearen ondoriozko kuota likidoaren % 35 gainditu.

Muga bera errespetatuz, nahikoa kuotarik egon ez delako kendu ez diren kopuruak aplikatu ahal izanen dira hurrengo hamar urteetan burutuko diren zergaldietako likidazioetan. Horretarako, subjektu pasiboak, kontabilitatea eta agiri egokiak erakutsiz, kenkarien jatorria eta zenbatekoa frogatuko ditu, sortu direneko zergaldia edozein dela ere.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa, derrigorrezko epearen barruan, emaitza positiboak lortzen dituen lehengo ekitaldira arte geroratu ahal izanen da kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko ekitaldietako galerak izan eta baliabide berriak benetan jarriz onbideratzen dituzten entitateetan, hortakotzat hartzen ez delarik erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa.”

Hamazazpi. 77. artikulua.

“77. artikulua. Lankidetzat egin beharra.

Nafarroako Erregistro Publikoetako titularrek, hilean behin, aurreko hilabetean osaketa, ezarpena, aldaketa edo iraungipena inskribatu duten entitateen zerrenda igorriko diote Ekonomi eta Ogasun Departamentuari.”

Idatz-zati berria. Idatz-zati bat gehitzen zaio 107. artikuluari

“Foru Lege honetako 17. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, bertan aipatzen diren aktiboak errentan eman beharko zaizkie interes ekonomikoko elkarteei loturik ez dauden hirugarrenei, eta beharrezkoa izanen da aktiboek elkarte horren jarduerari ukitzea eta bazkideek errentamendu hori bukatzen den zergaldia-aren amaiera bitarte mantentzea partaidetza.”

Hemezortzi. X. Tituluko VIII. kapituluaren izena aldatzen da.

“VIII. KAPITULUA Kontsolidazio fiskalaren araubidea”

Hemeretzi. 115. artikulua.

“115. artikulua. Definizioa.

1. Zerga taldeek Kapitulu honetan ageri den zerga-araubidea hartzen ahalko dute. Hala bada, taldeetan sartzen diren sozietateek ez dute banakako araubidean zerga-ordainketarik egin beharko.

2. Zerga-ordainketarako banakako araubidea honako hau izanen da: sozietate bakoitzari legokiokeena baldin eta kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatzerik ez balego.”

Hogei. 116. artikulua.

“116. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Zerga taldeak subjektu pasiboaren izaera izanen du.

2. Sozietate nagusiak zerga taldearen ordezkari izanen du, eta kontsolidazio fiskaleko araubidearen ondoriozko zerga-ordainketako betebeharrak gauzatzeko eta formazkoak bete beharko ditu.

3. Bai sozietate nagusiak bai menpeko sozietateek banakako araubidearen ondoriozko zerga-ordainketako betebeharrak bete beharko dituzte, araubide horretako zerga-zorraren ordainketa izan ezik.

4. Sozietate nagusiaren aurrean edo zerga taldeko edozein entitatearen aurrean egiten diren egiaztatze jarduketak administratiboek edo ikerketek, sozietate nagusia jakinaren gainean dagoela, eten eginen dute aipatu zerga taldea ukitzen duen Sozietateen gaineko Zergaren preskripzioepea.”

Hogeita bat. 117. artikulua.

“117. artikulua. Zerga taldearen definizioa. Sozietate nagusia. Menpeko sozietateak.

1. Honako hau da zerga taldea: Espainiako lurraldean egoitza duten sozietate anonimo, sozietate mugatu eta akzioen bidezko sozietate komanditarioek osatutako sozietate multzoa. Sozietate nagusi batek eta honen menpeko gaineko sozietateek osatzen dute zerga talde hori.

2. Sozietate nagusia honako baldintza hauek betetzen dituena izanen da:

a) Aurreko zenbakian ezarritako forma juridiko-etako bat izatea edo, bestela, pertsonalitate juridikoa edukitzea eta Sozietateen gaineko Zergapekoa izatea, ez salbuetsia. Espainiakoak ez diren entitateek Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrak sozietate nagusizat hartzen ahalko dira, baldin eta partaidetza badaukate beste sozietate batzuetan.

b) Zerga-ordainketako araubide hau aplikagarria izanen den zergaldiko lehen egunean, beste sozietate baten edo batzuen kapital sozialaren % 75eko partaidetza edukitzea, gutxienez, zeharka edo zuzenean.

c) Partaidetza horri eustea zergaldi osoan zehar. Baldintza hau ez da eskatuko baldin eta entitate partaidetua desegiten bada.

d) Espainiako lurraldean egoitza duen eta sozietate nagusizat joa izateko baldintzak biltzen dituen beste baten menpekoa ez izatea.

e) Zerga-gardentasunaren araubidearen menpekoak ez izatea.

3. Sozietate nagusi batek aurreko zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen den partaidetza-baldintzak betetzen baditu beste inongo sozietatearen gainean, azken sozietate hau menpeko sozietatea izanen da.

4. Ondoren aipatzen diren gorabeheretako bat bere baitan biltzen duten entitateek ezin izanen dute zerga talde batean parte hartu:

a) Zerga honetatik salbuetsita daudenek.

b) Zergaldia bukatzen denean ordainketa-eten-dura edo porrot egoeran daudenek, edo Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategineko 260. artikuluko 1. ataleko 4. zenbakiak aurreikusiten duen ondare-egoeran dagoenak, sozietate anonimo erako antolamendua ez izanik ere, baldin eta urteko kontuak onartzen direneko ekitaldia bukatu baino lehen aipatu egoera hori gainditu ez bada.

c) Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar duten menpeko sozietateek, karga-tasa sozietate nagusiarena bera ez denean.

d) Zerga taldeko parte izateko ezarritako baldintzak biltzen ez dituen beste sozietate baten bidez partaidetutako menpeko sozietateak.

5. Sozietate nagusiak bere izaera hau galtzen duenean zerga taldea iraungiko da.”

Hogeita bi. 118. artikulua.

“118. artikulua. Sozietateak zerga taldean sartzea edo hortik kanpo gelditzea.

1. Aurreko artikuluko 2.b) definitu den arabera-ko partaidetza lortzen denean sozietate baten gainean, sozietate hau zerga taldean sartuko da derrigorrez, hurrengo zergaldiko ondorioetarako. Sozietate sortu berrien kasuan, eratzen den unetik beretik sartuko da taldean, baldin eta eratzen den unean zerga talde bateko kide izateko gainarako baldintzak betetzen baditu.

2. Bere izaera galtzen duten menpeko sozietateak zerga taldetik kanpo geldituko dira, kanporatze hau gertatzen den zergaldiko ondorioetarako.”

Hogeita hiru. 119. artikulua.

“119. artikulua. Zeharkako nagusitzea zehaztea.

1. Sozietate batek baldin badu beste baten kapital sozialaren 100eko 75, gutxienez, eta, bere aldetik, bigarren honek badu hirugarren baten beste hainbesteko partaidetza, hirugarrenak laugarrenarena, eta abar, lehen sozietateak gainerakoetan duen zeharkako partaidetza kalkulatzeko, kapital sozialaren gaineko partaidetza-portzentajeak biderkatuko dira; biderketa honen emaitzak, gutxienez, 100eko 75 izan beharko du zeharka partaidetzen den sozietatea zerga taldean sartu ahal eta behar izan dadin. Horrez gain, beharrezkoa izanen da tarteko sozietate guztiak zerga taldekoak izan daitezen.

2. Zerga talde batean baldin badira partaidetza harremanak, direla zuzenak, direla zeharkakoak, sozietate bat zuzen edo zeharka kontrolatzen duen beste sozietate batek lehenean zenbateko partaidetza duen kalkulatzeko, partaidetza zuzen edo zeharkakoaren portzentajeak batuko dira. Partaidetutako sozietatea zerga taldean sartu ahal eta behar dadin, batuketak, gutxienik, kapital sozialaren 100eko 75 izan behar du.

3. Elkarren arteko partaidetza, partaidetza zirkularra edo konplexua baldin badago, datu objektiboekin frogatu beharko da, hala badagokio, berau kapital sozialaren 100eko 75ekoa dela gutxienez.”

Hogeita lau. 120. artikulua.

“120. artikulua. Kontsolidazio fiskaleko araubidearen aplikazioa.

1. Kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatuko da zerga taldea osatu behar duten sozietate guztiek hori erabakitzen dutenean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren erabakiak akziodunen batzarrak hartuko ditu —edo horren pareko organoak, sozietateak merkataritza formarik ez duenean—, eta kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatuko den zergaldia baino lehenagoko

zergaldiko edozein egunetan hartzen ahal dira, eta ondorioak sortuko dituzte aurkatzen ez direnean edo aurkatzerik ez dagoenean.

3. Hurrenez hurren zerga taldean sartzen diren sozietateek aurreko zenbakietan aipatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Betebehar horiek betetzeko epea zergak kontsolidazio fiskaleko araubidean ordaindu behar dituzten lehen zergaldia bukatzen den egunean bukatuko da.

4. Kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatu ahal izateko, nahitaezkoa izanen da artikulua honetako 1 eta 2. idatz-zatietan aipatu diren erabaki horiek hartzea.

Zerga-taldean aurrerantzean sartu beharreko sozietateei buruzko erabaki ezak entitate nagusiaren tributu arloko arau-hauste sinplea ekarriko du -300 eta 6.000 euro bitarteko isuna ezarriko zaio-, eta ez du eragotziko ukitutako sozietate taldean egiazki sartzea. Kontsolidazio fiskaleko araubidea, berriz, ezin izanen da aplikatu baldin eta idatz-zati honetan aipatzen den erabaki ezak irauten badu bi urteko epean, araubide horretan tributuak ordaindu behar diren lehendabiziko zergaldia bukatzen den egunetik aitzina."

5. Behin aukera honen ildotik joz gero, zerga taldea araubide honi lotuta geratuko da, mugarik gabe, hurrengo zergaldietan, 117. artikuluko betebeharrak betetzen badira eta ez bada jakinarazten uko egiten zaiola hori aplikatzeari; jakinarazpen hori bi hilabeteko epean egin beharko da, araubide hori aplikatutako azken zergaldia bukatzen denetik aitzina.

6. Artikulu honetako 1. zenbakia aipatu erabaki horien berri emango dio sozietate nagusiak Ekonomi eta Ogasun Departamentuari araubidea aplikagarri izanen den zergaldia hasi baino lehen.

Halaber, zergaldi bakoitza bukatu baino lehen, sozietate nagusiak jakinarazio dio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari zer sozietatek osatuko duten zerga taldea aldi horretan, aipatuz zer sozietate sartu diren eta zein atera diren."

Hogeita bost. 121. artikulua.

"121. artikulua. Zerga taldearen zerga-oinarria zehaztea.

1. Honela zehaztuko da zerga taldeen zerga-oinarria:

a) Zerga taldekoak diren sozietate guztien banan banako zerga-oinarriak batuz, banan banako oinarri negatiboengatik murriztapenak sartu gabe.

b) Eliminazioak eginez.

c) Aurreko ekitaldietan egindako eliminazioak gaineratuz.

2. Zerga taldearen zerga-oinarria zehazterakoan, honako hau ez da kontusail kengarritzat joa izanen: sozietate nagusiak, zuzen edo zeharka, menpeko sozietateetan duen kapital-partaidetzaren kontabilitate-balioaren eta menpeko sozietate horien fondo berekietan balio horiek egiten duten zati proportzionalaren arteko diferentzia positiboa.

Diferentzia negatiboa bada, ez da kargatu beharreko errentatzat hartuko.

Aurreko bi lerroaldeetan aipatzen den diferentzia menpeko sozietatea edo sozietateak lehenbiziko aldiz zerga taldean sartzen diren egunean dagoena izanen da.

3. (KENDUTA).

4. Eliminazioak eta gainerapenak abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuko irizpideen arabera eginen dira, haren bidez onetsi baitziren urteko kontu bateratuen formulaziorako arauak."

Hogeita sei. 122. artikulua.

"122. artikulua. Eliminazioak.

1. Zerga-oinarri bateratua zehazteko, zergaldian egin diren barne-eragiketen emaitzen eliminazio guztiak eginen dira.

Barne-eragiketak hauek izanen dira: zerga taldeko sozietateen artean egiten direnak, sozietateak taldekoak diren zergaldian eta kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatzen denean.

2. Barne-eragiketetako emaitzen eliminazioak, hauek positiboak edo negatiboak izanik ere, emaitza horiek zerga taldeko kideak diren entitateen zerga-oinarrietan sartzen diren heinean eginen dira.

3. Dibidendu hauek ez dira eliminatuko: banakakoen zerga-oinarrian sarturik daudenak, barne-eragiketen bikoitzarengatik kenkaria ez denean egin, Lege honetako 59.4. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritik."

Hogeita zazpi. 123. artikulua. 1 eta 2. zenbakia aldatu dira, eta 3. zenbakia gehitu.

"1. Emaitza eliminatuak zerga taldearen zerga-oinarrian gaineratuko dira hauek hirugarrenen aurrean egiten direnean.

2. Sozietate batek barne-eragiketa batean parte hartu duenean eta ondoren zerga taldeko kide izateari uzten dionean, eragiketa horren emaitza eliminatua zerga taldearen zerga-oinarrian, aipatu bereiztea gertatu baino lehenagoko zergaldiari dagokion partean, gaineratuko da.

3. Zerga-taldeko sozietateetako partaidetza-balorearen zuzenketa eliminatuen gehikuntza eginen da, baldin eta sozietate horiek zerga taldeko parte izateari uzten badiote eta zerga taldearen likidazio oinarri negatiboengatik –balio zuzenketa ekarri zuen galerari dagozkionengatik– murriztapena izateko eskubidea bere egin badute. Ez da partaidetza-balorearen zuzenketa gehikuntza eginen partaidetzako entitatea zerga taldeko kide ez zen zergaldietan.”

Hogeita zortzi. 124.1 artikulua.

“1. Zerga taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da talde horren likidazio oinarri negatiboekin, 40. artikulua ezartzen duen moduan.

Zerga taldean sartzen den unean edozein sozietate likidazio oinarri negatiboak murrizteko baditu, oinarri hauek taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko dute, sozietatearen beraren zerga-oinarria izanen delarik murriztearen muga, eta zerga-oinarri horretatik kendu eginen dira –aipatu ondorioetarako– mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak, Foru Lege honetako 59.2 artikulua aipatzen dituenak.”

Hogeita bederatzia. 125. artikulua.

“125. artikulua. Berrinbertsioa.

1. Zerga taldeko sozietateek 36. eta 70 bis artikuluek aipatzen dituzten aparteko etekinak baliatzen ahalko dituzte. Berrinbertsioa, aparteko etekina lortu zuen sozietateak egin ahal izanen du edo taldeko beste batek. Berrinbertsioa taldeko beste sozietate bati elementu bat erosiz gauzatu ahal da, elementu hori berria bada.

2. Onura fiskal horiek ezinezkoak izanen dira zerga taldeko entitateen arteko eskualdatzeen kasuan.”

Hogeita hamar. 126. artikulua.

“126. artikulua. Zergaldia.

1. Zerga taldearen zergaldia eta sozietate nagusiarena bat etorriko dira.

2. Menpeko sozietateren batek bukatzen duenean zergaldi bat banakako zerga-ordainketa araubidea arautzen duen arautegiaren pean, bukaera horrek ez du zerga taldearen bukaera baldintzatuko.”

Hogeita hamaika. 127. artikulua.

“127. artikulua. Zerga taldearen kuota osoa.

Zerga taldearen kuota osoa honako hau izanen da: sozietate nagusiaren karga-tasa zerga taldearen likidazio oinarrian aplikatuz gero ateratzen den kopurua.”

Hogeita hamabi. 128. artikulua.

“128. artikulua. Zerga taldearen kuota osoaren kenkariak eta hobariak.

1. Zerga taldearen kuota osoa Foru Lege honetako VI. Tituluko II., III. eta IV. Kapituluetan aurreikusten diren kenkariak eta hobariak jotzen duten adina txikiagotzen ahalko da.

Aipatu kenkariak eta hobariak jasotzeko ezarritako baldintzak zerga taldeak beteko ditu; Foru Lege honetako 62. artikulua ezarritako salbuespen-araubidearen ere taldeak berak.

2. Zerga taldean sartzen den unean edozein sozietate aplikatzeko kenkariak baditu, kenkari hauek taldearen kuota osoan kentzen ahalko dira, muga sozietateari zerga-ordainketako banakako araubidean egokitu zaiona izanen delarik.”

Hogeita hamahiru. 129.1 eta 3.d) artikulua.

“1. Sozietate nagusiak egin beharko ditu, zerga ondorioetarako, balantzea eta irabazien zein galeren kontu bateratua, zerga taldekoak diren sozietate guztiei integrazio orokorraren metodoa aplikatuz.”

“d) Egindako eliminazioen eta gainerapenen artean egon litezkeen diferentziak, behar bezala arazoiturik, zerga taldearen zerga-oinarria zehaztu beharrez egin direnak, eta artikulua honetako 1. zenbakiak aipatzen dituen agiriak prestatzeko egin direnak.”

Hogeita hamalau. 130. artikulua.

“130. artikulua. Kontsolidazio fiskaleko araubidea galtzea dakarten arazoak.

1. Kontsolidazio fiskaleko araubidea galduko da ondoren aipatzen direnak gertatuz gero:

a) Zerga taldeko sozietate batek edo batzuek bere baitan biltzea zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzea eskatzen duten gorabeheretako bat.

b) Aurreko artikuluko 1. zenbakiak aipatzen dituen informazio eman beharrak ez betetzea.

2. Kontsolidazio fiskaleko araubidea galtzea aurreko zenbakiak aipatzen dituen arazoietako bat atzematen denean gertatuko da, eta zergaldi hartako ondorioetarako izanen da, zerga taldeko sozietateak zergaldi hartan banakako zerga-ordainketa araubidean sartuko direlarik.”

Hogeita hamabost. 131. artikulua.

“131. artikulua. Kontsolidazio fiskaleko araubidea galtzearen eta zerga taldea desagertzearen ondorioak.

1. Zergaldi jakin batean, kontsolidazio fiskaleko araubidea galdu edo zerga taldea iraungitzen bada, eta zergaldi hartan taldeak baldin badauka gaineratzeke dagoen eliminaziorik, zerga taldearen zerga-oinarri negatiborik edo eta kuoten kenkaririk, konpentsatzeke dagoenik, ondoren esaten den bezala jokatuko da:

a) Gaineratzeke dauden eliminazioak kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikagarria den azken zergaldiari dagokion zerga taldearen zerga-oinarriari sartuko dira.

b) Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian zerga taldea osatzen duten sozietateek eskubidea izanen dute zerga taldearen likidazio oinarri negatiboak murrizteko, likidazio oinarri horiek sortzeko lagundu duten proportzioan.

Murrizpen hau, zerga taldearen likidazio oinarri negatiborik zehaztu zen urtetik edo urteetatik kontatzen hasita, Foru Lege honetako 40. artikuluan zehaztutako epea betetzeko gelditzen diren zergaldietan banakako zerga-ordainketako araubidean zehazten diren zerga-oinarri positiboekin eginen da.

c) Araubidearen galera edo iraungipena gertatzen den zergaldian zerga taldea osatzen duten sozietateek, zerga taldearen kuotaren kenkari aplikatzeke daudenak aplikatzeko eskubidea eskuratuko dute, konpentsazio-eskubide hau sortzen lagundu duten heinean.

Kenketa hauetan eginen da: egiteko dagoen kenketarako Foru Lege honetan ezarri epea osatzeko falta diren zergaldietan zehazten diren kuota osoetan, kentzeko zenbatekoak zehaztu ziren urte edo urteetatik kontatzen hasita.

2. Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian zerga taldean sartzen diren sozietateek, zerga taldeak egin dituen ordainketa zatikatuen-gatiko kenkari-eskubidea bereganatuko dute, ordainketa zatikatu hauek sortzen lagundu duten proportzioan.

3. Zerga taldeko sozietate batek edo batzuek taldekoak izateari uzten badiote, aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikagarri izanen da.”

Hogeita hamasei. 132. artikulua.

“132. artikulua. Zerga taldearen aitortpena, beronek bere burua desegitea eta bertan sartzea.

1. Sozietate nagusiaren betebeharra izanen da, zerga taldea aldarrikatzen duenarekin bat, taldeak dukeen zerga-ordainketako zorra kitatzea, eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak zehazten duen tokian, epean eta moduan zorraren dirua

sartzea. Sozietate nagusiak egiteko berak izanen ditu ordainketa zatikatuak direla eta.

2. Sozietate nagusiak banakako zerga-ordainketako araubidean egin beharko lukeen epearen barruan egin beharko da zerga taldearen aitortpena.

3. Zerga taldea iraungitzen denean, kontsolidazio fiskaleko araubidea galtzen denean, edo eta taldeko sozietateak bereizten direnean egin behar diren aitorten osagarriak epe honetan egin beharko dira: iraungipena, galera edo bereizketa eragin duten zioak gertatu eta sei hilabeteren ondorengo hogeitabost egun naturaleko epearen barruan.

4. Zerga taldeko sozietateek elkertasunez jokatuko dute zerga-zorra ordaintzeko orduan, zehapenak alde batera utzirik.”

Hogeita hamazazpi. 139.3 eta 4 artikulua.

“3. Eskuratutako ondasunak, zergari dagokionez, Foru Lege honen 135. artikuluan ezarritakoa arabera baloratuko dira.

Hala ere, entitate eskuratzailerak entitate eskualdatzaileraren kapitalean, gutxienez %5ean, parte hartzen duenean, partaidetzaren eskuraketaren salneurriaren eta horren balio teorikoaren diferentziaren zenbatekoa eskuratutako ondasunei eta eskubideei egotziko zaie urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onesten dituen abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuan ezarritako irizpideekin bat, eta aipatutako balorzioaren arabera egotzia izan ez den diferentzia horren zatia, zerga oinarritik kendu ahal izanen da, zenbatekoaren hamarrena delarik urtean gehieneko muga, ondorengo baldintzak betetzen baldin badira:

a) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona zein entitateetatik eskuratutakoa ez izatea partaidetza, edo Espainian egoitza duten pertsona fisikoengandik eskuratutakoa ez izatea, edo loturik dagoen entitate batetik, azken honek, bere aldetik, partaidetza aipatu pertsona edo entitateetatik eskuratu zuenean.

Letra honetan esaten den baldintza beteta dagoela ulertuko da hurrengo kasuetan:

a) Partaidetza Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten pertsona edo entitateetatik eskuratzten denean, edo eta partaidetza eskuratzen duen entitatearekin lotura duen beste entitate batetik, zeinak, bere aldetik, partaidetza aipatu pertsona edo entitateei eskuratu baitzien, zenbaki honetan aurreko lerroaldean aipatzen den diferentziaren zenbatekoa Espainian ordaindu duenean zerga partaidetzaren edozein eskualdaketa bidez.

Orobat, aipatu diferentzia kentzen ahalko da subjektu pasiboak frogatzen baldin badu beste hainbesteko zenbateko bat ordaindu dela Europako Batasuneko kide den beste Estatu batean, partaidetzaren eskualdaketarekin erdietsitako etekinaren tributu gisa, jasandako karga Zerga hau aplikatetik ateratakoa bezainbestekoa izanez gero eta, betiere, eskualdatzailea erregelamentuetan zerga paradisutzat hartutako herri edo lurralde batean bizi ez bada.

b') Partaidetza Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoengandik edo partaidetza aipatu pertsona fisikoei eskuratu dien entitate lotetsi batetik eskuratzen denean, pertsona fisiko horiek lortu duten ondare-gehikuntza Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarrian sartu dela baieztatzen denean.

b) Partaidetza eskuratu zuen entitatea ez egoitea, eskualdatu zuen edo entitateari dagokionez, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezartzen diren kasuetarik batean. Ondorio hauetarako ulertuko da Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako kasuak eta urteko kontu bateratuak formulatzeko arauei buruzko abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuko Lehen Kapituluko Lehen Atalean ezartzen direnak berdinak direla.

Letra honetan ezarritako baldintza ez da aplikatuko eskualdatzen duen pertsonak edo entitateak partaidetza eskuratzean ordaindutako salneurriaren arabera, aldi berean berak egoitza Espainiako lurraldean duten eta loturarik ez duten pertsona edo entitateei eskuratua dienean.

4. Aurreko a) eta b) letretan ezarritako baldintzak betetzen direnean, eskuratutako ibilgetuaren ondasunei egotzitako zatiaren balorazioak zerga ondorioak izanen ditu eta, ondasun amortizagarrien kasuan, egotzitako zati horren amortizazio kontablea kentzen ahalko zaio zerga oinarriari, Foru Lege honen IV. Tituluko II. Kapituluan ezarritako moduan.

Aurreko a) letran ezarritako baldintza betetzen denean eta b) letran ezarritakoa betetzen ez denean, partaidetza eskuratzeko salneurriaren eta bere balio teorikoaren arteko diferentzia amortizatzeako dotazioak kengarriak izanen dira, baldin eta baliogalera itzuliezina onorio direla frogatzen bada.”

Hogeita hemezortzi. 144. artikulua.

“144. artikulua. Gorabehera bereziak.

1. Kapitulua bonetan ezarritako araubidea Zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak aukeratuta,

ondorengo baldintzak biltzen dituzten diru bidezkoak ez diren ekarpenetan ezarriko da:

a) Ekarpina jasotzen duen erakundeak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, jarduerak hortxe burutzea, establezimendu iraunkor baten bidez, zeini ekarritako ondasunak lotuko baitzaizkio.

b) Ekarpina egindakoan, ekartzen duen entitateak, Zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa denak, ekarpina jasotzen duen entitatearen berezko fondoetan parte hartzea, %5ean gutxienez.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak akzio edo partaidetza sozialak ekartzen baditu, a) eta b) letretan ezarritako baldintzez gainera ondoko hauek ere bete-tzea:

a') Ordezkatzen den kapital sozialaren entitateak egoitza Espainiako lurraldean izatea eta entitate horri Foru Lege honen X. Tituluko II. Kapituluan ezarritako zerga gardentasunaren araubidea aplikatu beharrik ez izatea.

b') Entitatearen beraren fondoetan 100eko 5eko partaidetza, bederen, edukitzea.

c') Ekarpina egiten duena ekarpenaren agiri publikoaren data baino urtebete lehenagotik, etelaldirik gabe, haien jabe izatea.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek akzio edo partaidetza sozialak ez diren ondare elementuak ekartzen badituzte, elementu horiek jarduera ekonomikoei atxikiak izatea eta haien kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoaren arabera egitea.

2. Kapitulua honetan ezarritako araubidea jarduera-adarretako ekarpenetan aplikatuko da, ekarpen horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek egin badituzte eta, betiere, kontabilitatea Merkataritzako Kodean xedatutakoaren arabera egiten badute.

3. Ekartzen diren ondare-elementuak ezin izanen dira baloratu, zerga ondorioetarako, merkaturko balio arruntak jotzen duena baino balio handiagoarekin.

4. Kapitulua honetan ezarritako araubidea aplikagarria izanen da, baita ere, merkataritza-sozietateen izaera juridikoa ez duten eta zerga hauen menpe dauden subjektu pasiboek esku hartzen duten eragiketetan, baldin eta 133. artikuluan aipatzen diren eragiketen ondorioz ateratzen diren bezalako emaitzak sorrarazten badituzte.”

Hogeita hemeretzi. 145.1.b) artikulua.

“b) Ekarrirako ondasunen errenta egozkarrien pentzutan banatutako mozkinak salbuespenerako edo kenkarirako eskubidea emango dute, dibidendu nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko, bazkidearen partaidetzaren portzentajea edozein izanik ere.

Mozkinak banatzetik heldu den partaidetzaren balio galera, aurreko lerroaldean aipatua, zerga kontuetan ez da kengarria izanen, salbu eta mozkin horien diru zenbatekoarengatik, partaidetzaren eskualdaketaren bitartez, zerga ordaindu zuen.”

Berrogei. 146. artikulua.

“146. artikulua. Zerga-araubidearen aplikazioa.

1. Kapitulu honetan ezarritako araubidea aplikatzeko, bera hautatu beharko da ondoko arauen arabera:

a) Bategite edo bereizketa eragiketetan aukera hori sartu beharko da entitate eskualdatzaileen eta eskuratzzaileen bategite edo bereizketa proiektu eta akordioetan, betiere zerga kontuetarako goitza Espainian baldin badute.

Eragiketa horietan Foru Lege honen 134. artikuluan ezarritako araubidea aplikatu behar bada eta zerga kontuetarako ez entitate eskualdatzaileak ez eskuratzzaileak ez badute goitza Espainian, aukera entitate eskuratzzailearena izanen da eta eskualdaketaren agiri publikoan jaso beharko da.

b) Diru bidezkoak ez diren ekarpenetan aukera entitate eskuratzzailearena izanen da eta akordio sozialean jasoko da edo, hori izan ezean, egintza edo kontratua agertzen duen agiri publikoan.

Entitate eskuratzzaileak, zerga kontuetarako, goitza edo establezimendu iraunkorra Espainian ez duenean, aukera entitate eskualdatzailearena izanen da.

c) Balore trukaketen eragiketetan aukera entitate eskuratzzailearena izanen da eta akordio sozialean jasoko da edo, hori izan ezean, egintza edo kontratua agertzen duen agiri publikoan. Akzioak erosteko eskaintza publikoetan aukera eragiketa sustatu duen erakunde sozial eskudunarena izanen da eta argibideen orrian jaso beharko da.

Baloreak eskuratzzen dituen entitateak eta trukatzzen diren baloreen jabe den partaidetutako entitateak Espainian egoitzarik ez badute, baloreak eskualdatzen dituen bazkideak frogatu beharko du entitate eskuratzzaileari 90/434/EB Zuzentzarauaren araubidea aplikatu zaiola.

Nolanahi dela ere, aukeraren berri Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eman behar zaio erregelamenduan zehaztuko diren modu eta epeetan.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko egindako eragiketaren xede nagusietako iruzurra edo zerga ihesa direnean. Bereziki, araubidea ez da aplikatuko eragiketaren arrazoi ekonomikoak baliozkoak ez badira, hau da, bai eragiketan parte hartzen duten entitateen berregituraketa edo arrazionalizazioa baldin bada arrazoiak, bai, baina ez xedea zergetan onurak erdies-tea soilik baldin bada.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 94. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, interesatuek kontsultak egiten ahal dizkiote zergetako Administrazioari eragiketa zehaztutan betebehari aplikatu eta konpliztearen gainean. Administrazioaren erantzuna loteslea izanen da Kapitulu honen araubide berezia aplikatzeko, bai tributu honetan bai beste edozeinetan.

3. Kapitulu honetako errentak gerokotzeko araubidea ez da bateragarri izanen, Foru Lege honen 62. artikulua dioenaren aiora, Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten entitateen partaidetzak eskualdatzetik heldu diren errentetarako ezarritako salbuespenak aplikatzearekin.”

Berrogeita bat. 148. artikulua, hondarreko lerroaldea.

“Salbuespena aplikatzeko, 62. artikulua 1. zenbakiko a) letrak aipatzen duen guttieneko partaidetzaren baldintza betetik kontsideratuko da partaidetzaren erosketaren prezioa 6 milioi euro (998.316.000 pezeta) baino handiagokoa denean. Atzerriko baloreak dituen entitateak bigarren edo hurrengo mailako bere filialetan zeharka parte hartzen badu, Foru Lege honen 62. artikulua 1. zenbakiko c) letrak b') azpiletran ezarritakoa aplikatzearen, 100eko 5eko guttieneko portzentajea errespetatu beharko du, salbuespen batekin: filial horiek Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen ezaugarriak dituztenean, zuzenean partaidetutako entitate atzerriarekin sozietate talde bereko kide izanik eta kontabilitate estatu kontsolidatuak eginak.

4. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean Hirugarren Xedapen Gehigarria sartzen da eta 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorioak. Hona hemen haren edukina:

“Hirugarrena. Nafarroako Gobernuari behar diren behin-behineko xedapenak ezartzeko baime-na ematen zaio, Foru Komunitateko Balio Erantsia-ren gaineko Zergan Estatuko lurraldean une bakoitzean indarrean dauden arau berdinak, forman zein edukinean, eta oinarrizko printzipioak aplikatzeko, Hitzarmen Ekonomikoak dioenaren ariora.

Arau horiek xedatu eta hurrengo hamar egunetan Parlamentura igorri beharrak dira, behin betiko onespena eman dakien.”

5. artikulua. Zerga Bereziei buruzko Foru Legea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean Hirugarren Xedapen Gehigarria sartzen da eta 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorioak. Hona hemen haren edukina:

“Hirugarrena. Nafarroako Gobernuari behar diren behin-behineko xedapenak ezartzeko baime-na ematen zaio, Foru Komunitateko Zerga Berezietan Estatuko lurraldean une bakoitzean indarrean dauden arau berdinak, forman zein edukinean, eta oinarrizko printzipioak aplikatzeko, Hitzarmen Ekonomikoak dioenaren ariora.

Arau horiek xedatu eta hurrengo hamar egunetan Parlamentura igorri beharrak dira, behin betiko onespena eman dakien.”

6. artikulua. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zergari buruzko Testu Bateginaren jarraian heldu diren artikuluek honako idazketa hau izanen dute:

Bat. 9. artikulua.

“Hiriko finken alokairuetan Zerga esku-dirutan ordainduko da, eskala honen ariora:

		EUROAK
30,05 euro arte	0,09	
30,06tik	60,10era	0,18
60,11tik	120,20ra	0,39
120,21etik	240,40ra	0,78
240,41etik	480,81era	1,68
480,82tik	961,62ra	3,37
961,63tik	1.923,24ra	7,21
1.923,25etik	3.846,48ra	14,42
3.846,49tik	7.692,95era	30,77

7.692,95 eurotik goitikoarengatik 1000ko 4a ordainduko da.”

Bi. 22. artikulua.

“22. artikulua.

1. Eskrituren eta notario akten matritzak eta kopiak, baita lekukotasunenak ere, paper tinbratua egiten dira, orriko 0,15 eurokoan. Kopia soilak ez dira zergaren menpeko izanen.

2. Eskrituren eta notario akten lehenbiziko kopiek 100eko 0,5eko karga-tasa ordainduko dute xedea baloratzen ahal den kantitate edo gauza denean, Jabetza, Merkataritzako eta Industri Jabetza Erregistroetan inskribatu beharreko baina Ondorengotza edo Dohaintzaren gaineko Zergaren xede edo Arau honen 1. artikulua 1. atalaren 1 eta 2. zenbakietan adierazitako kontzeptuetakoak ez diren egintza edo kontratuak dituztenean, egintza edo kontratu diren aldetik. Tasa bera ordainduko dute protesto-akten kopiak.”

Hiru. 28. artikulua.

“28. artikulua.

1. Kanbio letrak diru zenbatekoari dagokion paper tinbratua egiten dira. Letra balio txikiago-ko paper batean egiten bada, legeriak agiri hauei ematen dien eraginkortasuna galduko dute. Zerga eskala honen arabera ordainduko da:

		EUROAK
24,04 euro arte		0,06
24,05etik	48,08ra	0,12
48,09tik	90,15era	0,24
90,16tik	180,30era	0,48
180,31tik	360,61era	0,96
360,62tik	751,27ra	1,98
751,28tik	1.502,53ra	4,21
1.502,54tik	3.005,06ra	8,41
3.005,07tik	6.010,12ra	16,83
6.010,13tik	12.020,24ra	33,66
12.020,25etik	24.040,48ra	67,31
24.040,49tik	48.080,97ra	134,63
48.080,98tik	96.161,94ra	269,25
96.161,95etik	192.323,87ra	538,51

192.323,87 eurotik goitikoarengatik 1000ko 3 ordainduko da, betiere eskudirutan.

Likidaziorako epean aurkezten ez bada legeriak ematen dion indar exekutiboa galduko du.

Atzerrian emandako kanbio letrek Espainaian ondorio juridiko edo ekonomikoa baldin badute

eskudiru bilakatuko dira aurreko karga eskalaren ariora.

2. Giro gisako, edo kanbio letren ordezko eta gordailuen ziurtagiriek eskudirutan ordainduko dute aurreko karga eskalaren ariora.

3. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eskudirutako ordainketak onartzen ahal ditu paper tinbratuaren ordezkari motak edo mekanizazio prozesuak hala eskatzen dutenean eta neurri egokiak hartuko dira agiria behar bezala identifikatu eta haren diru sarrera egiteko, eta eraginkortasun exekutiboa deusetan galarazi gabe.

4. Zor-agiri, bono, obligazio eta gainerako antzeko tituluek, seriean jaulkitakoek, gehienez hemezortzi hilabeko epea dutenek, besteren kapitalekoek, eta jaulkipeneko zenbatekoaren eta mugaegunerako itzultzera konprometitutako zenbatekoaren artean kontraprestazioa jasoko dutenek 1000ko 3an ordainduko dute, eskudirutan likidatua.”

Lau. 35.I.B) artikuluari idatz-zati berri bat eransten zaio.

“20. Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legearen 8 eta 11 artikuluetan araututako bermeak eratu beharri buruzko egintzak.”

7. artikulua. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Foru Diputazioak Erabakiaren bitartez 1970eko apirilaren 10ean onetsitako Oinordekotzen eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorrei buruzko Arauen ondoko artikulua hauek, honela idatziak geldituko dira eta indarra 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hartuko dute:

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua.

1. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergak, zuzeneko zerga subjektiboak, pertsona fisikoek erdietsitako irabazizko ondare gehikuntzak kargatzen ditu zergagaitza Arau hauetan agertzen bada eta ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitateari badagokio, Hitzarmen Ekonomikoaren 26. artikulua xedatzen duenari jarraikiz.

2. Zergagaiak dira:

a) Ondasun eta eskubideak “mortis causa” heredentziaz, legatuaz edo beste edozein oinordetza motaz eskuratzea.

b) Ondasun eta eskubideak “inter vivos” dohaintzaz edo dohako beste edozein negozio juridikoz eskuratzea.

c) Bizitza aseguruetako kontratuen onuradunek jasotako diru zenbatekoak, kontratu egilea eta onuraduna pertsona ezberdinak direnean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 14.2.a) artikuluan espresuki araututako kasuetan izan ezik.

3) Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen ondare gehikuntzak pertsona juridikoek eskuratzen baldin badituzte, ez dute zerga hau ordainduko eta bai, berriz, Sozietateen gaineko Zerga.

4. Zergatik salbuetsiak daude:

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 55.1.7. artikuluan ezarritakoaren ondorioz ezkontideen edo bikote egonkorretako kideen artean gertatzen diren eskualdaketak, xedapen horretan dagoen mugaraino.

b) Dirulaguntzak, bekak, sariak, primak, hobariak eta laguntzak, entitate publiko edo pribatuek ongintza, irakaskuntza, kultura, kirol edo gizarte ekintzako xedeekin emandakoak.

c) Aurreko zor baten kitatzea bermatzeko eta bizitza aseguru bateko kontratuaren onuraduna den aldetik, hartzekodun batek jasotako diru zenbatekoak, betiere hori guztia ongi frogaturik baldin badago.”

Bi. 28. artikulua.

“28. artikulua.

1. artikuluan ezarritako baldintzetan, sartu behar dira:

a) Ondasun eta eskubideak “mortis causa” heredentziaz, legatuaz edo beste edozein oinordetza motaz eskuratzea, inbentarioak eta banaketak egin gabe egonda ere..

b) Bizitza aseguruetako kontratuen onuradunek jasotako diru zenbatekoak, kontratu egilea eta onuraduna pertsona ezberdinak direnean, kontratua aseguratuak egin duenean edo aseguru kolektiboa denean.”

Hiru. 29. artikulua.

“29. artikulua.

1. Salbuetsirik izanen dira:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustategiak “mortis causa” eskuratzea Nafarroako Nekazaritzako Ustategien Erregistroari buruzko abendua-

ren 15eko 20/1997 Foru Legean ezarritako baldintzetan.

b) Industria edo negozio bankuek 1962ko azaroaren 29ko Errege Lege Dekretuaren baldintzetan jaulkitako obligazioak eta kutxa bonoak "mortis causa" eskuratzea, betiere eragileak 1992ko ekainaren 24aren aurretik erosi baldin baditu. Horiez gainera, hasierako tituluak amortizatu eta banku beretan berriz inbertitu diren tituluak eta kutxa bonoak ere.

2. Ezkontideek, bikote egonkorretako kideek, odolkidetasunaren linea zuzeneko aurrekoek edo ondorengoek, adoptatzaileek eta adoptatuek ondasun eta eskubideak "mortis causa" eskuratzean ehuneko 0,80ko karga-tasa ordainduko dute.

Karga-tasa bera aplikatuko zaie 28. artikulua-ren b) letrak aipatzen dituen bizitza aseguruetak kontratuen onuradunei, baldin eta hauek kontratu egilearekin edo aseguru hartzailearekin aurreko lerroaldeko ahaidetasuna badute."

Lau. 30. artikulua.

"30. artikulua.

1. Afinitatezko aurrekoek eta ondorengoek eta bigarren eta hirugarren graduako albo-ahaideek eskuratzean, 7.813,16 euroko murrizketa izanen dute eta zenbateko horren gainean ordainduko da ehuneko 0,80ko karga-tasarekin.

Aurreko lerroaldean aipatutako murrizketa soilik aplikatuko da 28. artikulua-ren b) letrak aipatzen dituen aseguruak jasotzean eta onuradunek "mortis causa" dela medio beste deus jaso edo eskuratu ezean.

2. Naturgune babestu deklaraturako edo Natura 2000 sare ekologiko europarraren Komunitateko Intereseko toki gisa proposaturako lurren jabe go osoa edo jabe go soilia "mortis causa" eskuratzean, zergaren oinarrian 100eko 95eko murrizketa izanen dute. Murrizketa bera aplikatuko da usufuktua bukatzean ere.

3. 28. artikulua-ren b) letrak aipatzen dituen bizitza aseguruetak kontratuen onuradunek aseguru entitateetatik zenbatekoak jasotzean, kontratua 1992eko ekainaren 24a baino lehen egin baldin bada, ondoko onurak izanen dituzte zerga oinarrian:

a) Zergatik salbuetsiak izanen dira lehenbiziko 3.005,06 euroak kontratu egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna afinitatezko aurrekoa edo ondorengoa baldin bada. Gainera, 3.005,06 eurotik goitiko zenbatekoek 100eko 90eko murrizketa izanen dute.

b) 100eko 50eko murrizketa izanen da kontratu egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna bigarren graduako albo-ahaidea baldin bada.

c) 100eko 25eko murrizketa izanen da kontratu egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna hirugarren edo laugarren graduako albo-ahaidea baldin bada.

d) 100eko 10eko murrizketa izanen da ahaide-tasuna txikiagoa bada edo ahaidetasunik ez bada-go.

4. Aseguru kolektiboetan aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunari erreparatuko zaio.

5. Bizitza aseguruetak kontratuetatik jasotako zenbatekoak likidatzeko, zenbateko horiek onuradunak heredentzian eskuraturako gainerako ondasun eta eskubideei gehituko zaizkie eragilea, bere aldetik, banako aseguruaren kontratu egilea edo aseguru kolektiboaren aseguraturua denean."

Bost. 114.1 artikulua.

"1.1. Arau hauen 1. artikuluan ezarritako baldintzei ondoko hauek ere men egin behar diete:

a) Ondasun eta eskubideak dohaintza edo beste bide juridiko baten bidez "inter vivos" dohainik eskuratzea.

b) Bizitza aseguruetak kontratuen onuradunek zenbatekoak jasotzea aseguraturua bizirik dagoenean eta kontratu egilea onuraduna ez denean.

c) Aseguraturua hiltzen bada, aseguru banako kontratutik heldu diren zenbatekoak jasotzea, hura kontratu egilea ez denean.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen jasotze eta eskuratzeez Oinordekotzen gaineko Zerga ordainduko dute, diru zenbatekoaren arabera eta emaila edo dohaintza egile edo kontratu egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera, eta 29. artikulua-ren 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie."

Sei. 116. artikulua.

"116. artikulua.

1. Salbuetsirik izanen dira:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak dohaintza edo beste bide juridiko baten bidez "inter vivos" dohainik eskuratzea Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legean ezarritako baldintzetan.

b) Eskualdaketak eta gainerako egintzak eta kontratuak, baldin eta beraien xedea Zerga ordaindu beharra ekarriko zuten aurreko beste egintza batzuen eraginkortasunik eza salbatzea bada eta ez izatea edo deuseztasuna dakarren akatsen bat badute.

2. Naturgune babestu deklaraturako edo Natura 2000 sare ekologiko europarraren Komunitateko Intereseke toki gisa proposaturako lurren jabe go osoa edo jabe go soila "inter vivos" dohaintza egitean, zergaren oinarrian 100eko 95eko murrizketa izanen dute. Murrizketa bera aplikatuko da eskualdatzaileak gorde zezakeen usufruktua bukatzean ere."

Zazpi. V. Titulua.

"V. TITULUA
Zergaren kudeaketa

I. KAPITULUA
Arau orokorrak

201. artikulua.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta biltzeko eskumena Ekonomi eta Ogasun Departamentuak izanen du.

202. artikulua.

Subjektu pasiboek tributu aitortpena aurkeztu beharko dute Arau hauetan aipatzen diren zergagaiak bildurik, eta arautegiak finkatuko dituen modu eta epeetan.

203. artikulua.

Agiriaren aurkezlea, aurkezte hutsagatik, Zerga ordaindu beharra dutenen mandataria izanen da, eta aurkeztu duen agiriak bidaltzen zaizkion jakinarazpen guztiek eta egiten dituen diligentsiek interesatuek beraiek egin balituzte bezalako balioa eta ondoreak izanen dituzte.

204. artikulua.

Zerga honi lotutako egintza edo kontratuak dauzkaten aipatzen duten agiriak ez dira onartuko bulego edo erregistro publikoetan eta ez dute haietan ondorerik sortuko, baldin eta Zerga ordaindu dela, hartatik salbuetsita dagoela edo hura ordaindu beharrik ez duela frogatzen ez bada, hipotekei buruzko legerian ezarritakoa edo Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren baimena salbu direla. Epaitegi eta auzitegiek onartzen dituzten agirien kopia baimenduak bidaliko dizkionte Departamentu horri, hain zuzen ere likidatzeko aurkeztu direla dioen oharrik ez duten agirienak.

II. KAPITULUA
Balioa egiaztatzea

205. artikulua.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eskualdatu diren ondasun eta eskubideen balioa egiaztatzen ahalko du Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritako egiaztatzekeo baliabideak erabiliz eta, gainera:

a) Nazioko edo atzerriko merkatuetan kotizatzen ez duten sozietateen edo enpresa ez-sozietarioen akzioak edo partaidetzak direnean, Administrazioak bere eskuetan dituen balantze eta datuak erabiliz. Balantze horiek, zergei dagokienez, indar osoa dute enpresaren hurrengo ekitaldi ekonomiko osoan, non eta kontrako frogagiri publikoa ez dagoen, eta eskualdaketaren eguneko balantzea eskatzea deusetan galarazi gabe.

b) Subsidiarioki, Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legean Zerga sortzen den egunera-ko ezarritako balorazio arauak erabiliz.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egiaztapen horiek, zeinahi dela, erabiltzen ahalko ditu eta ez ditu nahitaez denak gauzatu beharko bakar batekin benetako balioa edo balio erreala atzematen baldin bada.

3. Interesatuak behartuak daude aitortpena aurkeztera eta hartan paratuko dute karga jasotzen duen ondarean gertatutako gehikuntzaren ondasun eta eskubideen benetako balioa edo balio erreala sortzapenaren egunean. Balio honek, altuagoa baldin bada, lehentasuna izanen du balio egiaztatuen aldean.

4. Balioen egiaztapenaren jakinarazpena Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egiten duen likidazioarekin batera emanen da.

5. Balioak egiaztatu eta interesatuek deklaratu dituztenak baino balio altuagoak ateratzen badira, inpugnatu daitezke balio berriek izan behar dituzten likidazioak erreklamatzeko edo erregelamenduz ezarriko diren modu eta epeetan kontradikziozko peritu tasazioa sustatzeko paratutako epe beretan. Kontradikziozko peritu tasaziorako eskaera aurkeztean, egindako likidazioen ordainketa eta haien kontrako erreklamazio epeak bertan behera utziko dira.

Irabaziko "inter vivos" eskualdaketan kasuan, administrazio egiaztapenaren balioek eskualdatzaileendako zerga ondorioak izaten ahal dituztenean, horiei jakinaraziko zaie, bereziki, epe berdinean inpugnazioak egin ditzaten edo kontradikziozko peritu tasazioaren bidez zuzenke-

ta eska dezaten. Erreklamazioa edo zuzenketa haintzat hartzen bada, osorik edo zati batean, ondotik emanen den ebazpenak onura ekarriko die Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren subjektu pasiboei.

III. KAPITULUA Likidazio partzialak

206. artikulua.

1. 28. artikulua b) letrak aipatzen dituen heredentziako oinordekotzen eta aseguruaren interesatuek Zergaren likidazio partziala egin dakiela eskatzen ahal dute bakarrik honako hauetarako: bizitza aseguruak, eragilearen kredituak eta sortutako eta jaso gabeko ondasunak kobratu, gordailuan dauden ondasunak, baloreak, efektuak edo dirua jaso eta gainerako antzeko kasuak.

2. Erregelamenduz emanen dira likidazio horiek egiteko modua eta epeak eta interesatuek diru zenbatekoak kobratzeko, edo dirua edo ondasunak jasotzeko bete beharreko baldintzak.

Aurreko leerroaldean aipatzen diren bizitza aseguruak kobratzeko eginen diren likidazio partzialetan kontuan hartuko dira Arau hauen 30. artikuluan aurreikusitako murrizketak, hartan paratutako baldintza eta mugekin.

3. Likidazio partzialak kasuan kasuko oinordekotzari dagokion behin betiko likidazioaren kontura egindako sarrerak izanen dira.

IV. KAPITULUA Zergaren ordainketa

207. artikulua.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egindako likidazioak Nafarroako Foru Komunitateko Dirubilketa erregelamenduak ezarritako epeetan ordainduko dira.

V. ARTIKULUA Ordainketa geroratu eta zatikatzea

208. artikulua.

Hurrengo artikulua xedatzen duena deusetan galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Dirubilketa Erregelamenduan ordainketa geroratu eta zatikatzeke ezarritako arauak aplikatuko dira.

209. artikulua.

28. artikulua b) letran aipatzen diren bizitza aseguruetan diru zenbatekoa errentan jasotzen baldin bada, onuradunak zergaren ordainketa zatitzeko eskatzen ahal du errentak irauten duen urteetan aldi baterako errenta baldin bada, edo

gehienez hamabost urtetan biziarteko errenta baldin bada, erreskate eskubidea erabiltzen ez den bitartean.

Geroratze horrek ez du ekarriko kauziorik paratu beharrik eta ez du inolako zergarik sortuko.

Pentsioa ahitzen denean, ordaindu gabeko ordainketa zatituak ez dira eskatzen ahal, baina bai erreskate eskubidea erabiltzen baldin bada.

Artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

VI. KAPITULUA Agintarien, funtzionarioen eta partikularren betebeharrak

210. artikulua.

1. Organo judizialek Ekonomi eta Ogasun Departamentuari hilabetero igorri behar diote, Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergarekin kargatutako ondare gehikuntzarik egonez gero exekutoriatutako epaien eta irmo emandako epaien zerrenda.

2. Erregistro Zibileko arduradunek Ekonomi eta Ogasun Departamentuari igorri behar diote, hilabetero eta lehenbiziko hamabostaldian, aurreko hilabetean hildakoen izen eta helbideen zerrenda.

3. Notarioek ere Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eskatzen dizkien datuak, euren eginkizunak betetzen parte hartutako egintzei buruzkoak, eman behar dituzte, eta dohainik eginen dituzte, hamabost egunetan, haien protokoloetatik eskatzen zaizkien agirien edo baimenen kopiak, bi salbuespenekin: 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34 eta 35. artikuluek aipatzen dituzten tresna publikoak eta ezkontza aferak, ezkontideen erregimen ekonomikoari buruzkoak izan ezik.

Orobat, igorri beharko dituzte hiruhilabeteko bakoitzaren lehenbiziko hamabostaldian, aurreko hiruhilabetekoan baimendutako egintza edo kontratuen agiriak, Zergaren gaia diren ondare gehikuntzei buruzkoak. Epe berean, ezagutzeko edo legitimatzeko eraman zaizkien agiri pribatuen zerrenda bidali behar dute eta bakoitzaren edukina aipatu.

4. Organo judizialek, finantzetako bitartekariak, elkarteak, fundazioak, sozietateak, funtzionarioak, partikularrek eta beste edozein entitate publiko zein pribatuk ez dute ondasunak ematerik erabakiko aurretik Zergaren ordainketa edo salbuespena egiaztatu gabe, salbu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak baimena ematen badu.

5. Aseguru entitateek ez dituzte egiten ahalko pertsona baten bizitza aseguru kontzertatuen likidazio eta ordainketa, aurretik Zergaren ordainketa edo salbuespena egiaztatu gabe, salbu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak baimena ematen badu.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritako obligazioak ez betetzeak zehapena ekarriko du, 211. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Organo jurisdikzionalak direnean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari haren berri emanen dio, Fiskaltzaren bitartez, behar diren ondorioak izan ditzan.

VII. KAPITULUA Arau-haustekak eta zehapenak

211. artikulua.

1. Arau hauetan erregulatutako Zergarekiko arau-haustekak kalifikatu eta zehatuko dira Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorrean eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren ariora.

VIII. KAPITULUA Preskripzioa

212. artikulua.

1. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren preskripzioa Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorrean 55. artikulua eta hurrengoek xedatzen dutenaren ariora arautuko da.

2. Aurreko idatz-zatien ezarritakoa deusetan galarazi gabe, likidatzeko aurkezten diren agirietan, preskripzioa gauzatzeko, pribatuak baldin badira aurkezpenaren eguna hartuko da kontuan, aurretik Kode Zibilaren 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen ez bada, kasu horretan kontatuko baita inkorporatu, inskribatu, hil edo eman zeneko eguna. Agirien bidez egiaztatzen ez diren kontratuetan, data izanen da interesatuek Arau hauen 202. artikulua ezartzen duena betetzen duten egunekoak."

8. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak aldatu egiten dira. Tarifa horiek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. eranskinak biltzen ditu. Hona hemen aldaketak:

1go. Lehenbiziko ataleko 471. epigrafearen oharren aldaketa

"Oharra: multzo horren barnean sartzen da edozein material (egurra, paper zaharrak, lastoa, e.a.) oinarri harturik prozedura ororen bitartez (mekanikoa, kimikoa eta semikimikoa) paper eta kartoirako oreka fabrikatzea. Hor sartzen dira orobat ondorengo inolako manipulaziorik gabe fabrikazio makinatik beretik lehortu ondoren ateratzen diren ore-produktuak.

Ondorengo manipulazio zein transformazio prozesurik gertatuz gero, 473.2 epigrafeko tributuak ordaindu beharko ditu.

Argibideak emateko, besterik gabe, subjektu pasiboak zein jardueratan ari den aitortuko du hurrengo epigrafeetako sailkapenaren arabera:

471.1 epigrafea. Paperorea.

471.2 epigrafea. Paperorea fabrikatu ondoko azpiproduktuak eta hondakinak.

2gn. Lehenbiziko ataleko 472. epigrafearen oharren aldaketa

"Oharra: multzo horren barnean honako hauen fabrikazioa sartzen da: egunkarietarako papera, liburuetarako, paper zelofana eta inprimategi eta erreprodukzioko beste lan batzuk, idazteko papera, kartulina, Kraft papera eta kartoia, zetazko papera, paper higienikoa, erretzeko papera, ontzikietarako kartoia, kaxak egiteko kartoia, e.a. Baita paper argizarizatuak, satinatuak, engomatuak, estukatuak, laminatuak eta makinan bukatutako beste paper batzuk ere, 471. epigrafearekin bat eginiko oreka lehortzeko prozesutik sortutako zelulosa moldatuko albeoloak barne.

Argibideak emateko, besterik gabe, subjektu pasiboak zein jardueratan ari den aitortuko du hurrengo epigrafeetako sailkapenaren arabera:

472.1 epigrafea. Papera eta kartoia.

472.2 epigrafea. Papera eta kartoia fabrikatu eta eraldatu ondoko hondakinak."

3gn. Lehenbiziko Ataleko 849.5 epigrafearen titularen aldaketa.

"849.5 epigrafea. Korrespondentziaren mezularitza, mandataritza eta hura banatu eta erabiltzeko zerbitzuak".

4gn. Bigarren Ataleko 733. taldean, "Notarioak", ohar bat sortzea:

"Oharra: Talde honetan matrikulatutako subjektu pasiboek laguntzako bulegoak izaten ahalko dituzte euren barrutietako udalerrietan, gain-kuo-

tarik ordaindu beharrik gabe notaritzari buruzko legeetan aurreikusitako baimena baldin badute.”

5gn. Bigarren ataleko 745 taldea, “Merkataritzako artekari kolegiatuak”, kentzen da.

6gn. Bigarren ataleko 747. taldean, “Kontu ikuskariak eta kontuetako zinpeko zentsoreak”, ohar bat sortzea:

“Oharra: Atal honetako beste talderen batean alta emana duten eta, beren Lanbide Estatutua edo jardueran aritzeko arautegia medio, kontu auditoretza jardueran aritzeko ahalmena duten profesionalak ez dute ordaindu beharko talde honi dagokion kuota ezta alta eman ere.”

2. Aurreko lerroaldeko aldaketak medio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan egoera aldatu zaien subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu beharko dute Jarduera Ekonomikoen edo Lizenzia Fiskalaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren 5, 6 edo 7 artikuluetan, kasuan kasuan, ezarritako moduan.

9. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoak.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko Foru Legearen ondoko artikuluek honako idazketa hau izanen dute:

Bat. 31.b) artikulua.

“b) Hautapen proben deialdia egin aurretik hilabetez edo luzaroago lan-eskatzailerik gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hau izateko baldintza izanen da kasuko epean eskaintako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo eraberritze ekin-tzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako arrazoia izan ezean.”

Bi. 33. artikulua.

“33. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasibo dira Nafarroako Aldizkari Ofizialaren paperezko edizioa erosten edo haren harpidetza egiten dutenak, iragarkia argitaratzeko eskatzen dutenak eta iragarki horiei zuzenean onura ateratzen dieten pertsona fisiko edo juridikoak.”

Hiru. 51. artikulua, 2.6 eta 2.7 idatz-zatiak.

		euroak
2.6	Nekazaritzako ustiattegietako titularrek nekazaritzako ibilgailuekin zirkulatzeko sei hilabetetan nahi adina bidaia egiteko baimen berezia:	21,04
2.7	2.5 eta 2.6 idatz-zatietan aipatu baimen berezien originalaren kopiak emateagatik	9,25

Lau. 56. artikulua.

“56. artikulua. Merkatzeak.

Nafarroako Toki entitateei 100eko 100ean merkatuko zaizkie aurreko artikuluaen tarifak, informazioa bere mugapeari dagokiona denean

eta ofizialki eskatuta eta haiexek erabiltzeko ematen denean.”

Bost. 99. artikulua.

“99. artikulua. Tarifak.

Tasak honako tarifak izanen ditu:

		EUROAK
1. TARIFA	Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua:	Dohainik
2. TARIFA	Batxiler titulua:	
	– Tarifa normala:	41
	– Familia larria 1. mota:	20,50
	– Familia larria 2. mota:	0
3. TARIFA	Titulu teknikoa:	
	– Tarifa normala:	16
	– Familia larria 1. mota:	8
	– Familia larria 2. mota:	0
4. TARIFA	Goi Mailako Teknikari titulua:	
	– Tarifa normala:	40
	– Familia larria 1. mota:	20
	– Familia larria 2. mota:	0
5. TARIFA	Lanbide titulua:	
	– Tarifa normala:	76
	– Familia larria 1. mota:	38
	– Familia larria 2. mota:	0
6. TARIFA	Hizkuntza Gaitasuneko titulua:	
	– Tarifa normala:	20
	– Familia larria 1. mota:	10
	– Familia larria 2. mota:	0
7. TARIFA	Euskararen Gaitasun Agiria:	
	– Tarifa normala:	18
	– Familia larria 1. mota:	9
	– Familia larria 2. mota:	0

Sei. 109.4 artikuluaen lehenbiziko lerroaldea.

“4. Azienda hiltzen aritzen diren lokaletako titularrek zilegi izanen dute lagungarritzko langile eta laguntzaileen kostu erantsiarekin kostu-kenketa egitea. Ez da zilegi izanen kopuru hori Tm.ko 2,91 euro baino gehiago izatea abastoko animaliak badira eta Tm.ko 0,91 euro kortako hegazti, untxi eta ehiza xehea badira. Hartarako, zilegi izanen

da aipatu kenketa kontatzea honako kopuruak aplikatuz hildako unitateko.”

Zazpi. X. Tituluari V. Kapitulu berria eransten zaio 133 bis artikuluaekin.

“V. KAPITULUA

Tasa kartografiako produktuak emateagatik

133 bis artikulua.

1. Zergagaia.

Tasaren zergagaia kartografiako produktuak emateko zerbitzua eskaintzea da.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak zergagaiaren zerbitzua jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

3. Sortzapena.

Zergagaiaren zerbitzua eskatzen den unean sortuko da tasa.

4. Tarifa.

Tasak ondoko tarifak izanen ditu:

I. TARIFA: PLANO ETA LITOBALAKEN KOPIAK PAPER HELIOGRAFIKOAN			
PLANOAREN IZENA	LEHENBIZIKO KOPIA	PAPERA HURRENGO KOPIAK (3 gehienez)	POLIES-TERREAN
	EURO	EURO	EURO
1:500 (100 HERRI 1978KOA)	9	1,20	18
1:500 – ALTSASU	6	0,60	12
CORELLA	6	0,60	12
LIZARRA	6	0,60	12
AZKOIEN	6	0,60	12
ZANGOZA	6	0,60	12
SAN MARTIN UNX	6	0,60	12
UXUE	6	0,60	12
TUTERA	6	0,60	12
1:500 (IRUÑERRIA-TRACASA)	6	0,60	12
1:1000 – TUTERA	7,20	0,60	18
1:2000 – IRUÑERRIA	7,20	0,60	18
BELAGUA	7,20	0,60	18
EUGI	7,20	0,60	18
ALTSASU-OLAZTI	7,20	0,60	18
TAFALLA-ERRIBERRI	7,20	0,60	18
1:5.000	6	0,60	15
1:10.000	9,60	1,20	18
1:20.000	10,80	1,20	18
1:2.000 ORTOFOTOGRAFIA (VALTIERRA)	7,20	0,60	36
1:2.000 ORTOFOTOGRAFIA (ZURI-BELTZEAN)	6	0,60	
ESKALA ERTAINEKO LITOBALAK 1:5.000	3		

2. TARIFA: ARGITALPENAK, ORTOAK ETA KATALOGOA	
MAPAREN IZENA	EURO
1:5.000 ORTOFOTO DIGITALA (ZURI-BELTZEAN) (KOLORETAN)	12
1:10.000 ORTOFOTO DIGITALA (ZURI-BELTZEAN) (KOLORETAN)	18
1:10.000 MAPA TOPOGRAFIKOA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	3
1:25.000 KOLORETAKO ORTOFOTOAK, PARETAKOAK ETA TOLESTUAK	2,40
1:25.000 LABORANTZA ETA APROBETXAMENDUEN MAPA	6
1:100.000 MAPA TOPOGRAFIKOA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	3,60
1:200.000 MAPA TOPOGRAFIKOA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	3,60
1:200.000 ERLIEBE MAPA	30
1:200.000 MAPA GEOLOGIKOA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	9
1:200.000 MAPA GEOLOGIKOA ETA TXOSTENA	15
1:400.000 MAPA TOPOGRAFIKO ETA HIPSOMETRIKOA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	2,40
1:850.000 MAPA, KOLORETAN ETA ZURI-BELTZEAN	1,20
1:100.000 PIRINIOKO MAPA, PARETAKOA ETA TOLESTUA	1,20
1:12.500 IRUÑERRIKO ORTOFOTOA	36
KARTOGRAFIKO KATALOGOA	9

3. TARIFA: PLOT PLANOAK	
PLOT MAPAREN IZENA	EURO
PLOT (PAPERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:500	12
PLOT (PAPERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:5.000	12
PLOT (PAPERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:10.000	18
PLOT (POLIESTERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:500	30
PLOT (POLIESTERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:5.000	30
PLOT (POLIESTERREZKO EUSKARRIKO KARTOGRAFIA) 1:10.000	30
PLOT GEOLOGIKOA 1:25.000	18

4. TARIFA: KARTOGRAFIA ETA ORTOFOTOGRAFIA DIGITALA			
IZENA	EUSKARRIA	FORMATOA	EURO
MAPA 1:500 (12,5 Ha./Orria)/Gaurkotzen	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	30
MAPA 1:5.000 (800 Ha./Orria)/Gaurkotzen	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	30
MAPA 1:10.000 (3.200 Ha./Orria)/Gaurkotzen	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	42
MAPA 1:100.000	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	150
MAPA 1:200.000	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	150
MAPA 1:400.000	CD-ROM	DGN/DWG/DXF	90
ORTOFOTOMAPAK:			
ESKALA: 1:5.000 ZURI-BELTZEAN	CD-ROM	TIFF	60
1:10.000 ZURI-BELTZEAN	CD-ROM	TIFF	60
1:5.000 KOLORETAN	CD-ROM	TIFF	60
1:10.000 KOLORETAN	CD-ROM	TIFF	60
1:25.000 KOLORETAN	CD-ROM	TIFF	60
LURZATIAREN EREDU DIGITALA: MALLA, 40 edo 200 m.	3,5"-KO DISKETTEA / CD-ROM	ASCII	30

5. TARIFA: ARGAZKIAK ZURI-BELTZEAN			
IZENA	FORMATOA	PAPEREAN (EURO)	PELIKULAN (EURO)
Fotograma	24x24	2,80	
Diapositiba	24x24		8,40
Anpliazioa	50x50	19,50	33,40
Anpliazioa	50x60	20,90	34,80
Anpliazioa	70x70	30	52,30
Anpliazioa	70x80	35	55,80
Anpliazioa	80x90	48,80	84,30
Anpliazioa	100x100	53,70	90,60

6. TARIFA: ARGAZKIAK KOLORETAN			
IZENA	FORMATOA	PAPEREAN (EURO)	PELIKULAN (EURO)
Fotograma	24x24	7,40	
Diapositiba	24x24		13,90
Anpliazioa	50x50	33	55,80
Anpliazioa	50x60	33	55,80
Anpliazioa	70x70	55,70	80,20
Anpliazioa	70x80	55,70	80,20
Anpliazioa	80x90	68,30	101
Anpliazioa	100x100	78	118,50
Koloretako argazkiak 12 euroko karga izanen dute eskaera bakoitzeko.			

7. TARIFA: NEGATIBOEN BIHURKETAK, ORTOFOTOTIK ZURI-BELTZERA	
IZENA	EURO
1/5.000ko ortofototik 1:10.000ra RC-n (pelikula):	25,80
1/5.000ko ortofototik 1:20.000ra RC-n (pelikula):	21,60
1/5.000ko ortofototik 1:10.000ra PM-12-n:	32,80
1/5.000ko ortofototik 1:20.000ra PM-12-n:	25,80
1:5.000ko poliester matezko ortofototik (PM-12) 1:10.000ra RC-n:	34,90
Ortofotoen kopiak zuri-beltzean:	
– 1:5.000ko ortofotoa RC paperean:	50,90
– 1:5.000ko ortofotoa PM.12-n:	90

5. Murrizketak.

a) Nafarroako Administrazio Publikoetako Sozietate Publiko eta Erakunde, eta Unibertsitatei eta ikastetxeei 100eko 25 murriztuko zaizkie aurreko atalaren tarifak.

b) Aurreko atalaren 5 eta 6. tarifei dagokienez, 10 baino ale gehiagoko eskabideetarako, koloretan zein zuri-beltzean, oro har, honako murrizketa hauek izanen dira:

	AZALPENA	MURRIZKETA
Kontaktu eta diapositibetan	10 aletik goiti:	%5
	20 aletik goiti:	%10
	50 aletik goiti:	%15
	100 aletik goiti:	%20
Anpliazioetan:	10 aletik goiti:	%5
	20 aletik goiti:	%10
	50 aletik goiti:	%15
	100 aletik goiti:	%20

Zortzi. 137. artikulua, 1. tarifa.

		EURO
1. TARIFA	Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden erregistroan inskribatzeagatik, hasierako ikuskapen fakultatiboa barne:	17
	Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden erregistroko inskribazioa berritzeagatik:	9
	Hazi eta mintegiko landareen sortzaile, merkaturatzaile eta inportatzaileen erregistroan inskribatzeagatik:	6
	Txartelak emateagatik:	6

Bederatzi. 163. artikulua, 1, 2 eta 3. tarifen b) letra.

“b) Aplikatzen ahal den gehieneko karga-tasa 100eko 1ekoa izanen da.”

Hamar. 163. artikulua, 4. tarifaren b) letra.

“b) Aplikatzen ahal den gehieneko karga-tasa 100eko 1,5ekoa izanen da.”

Hamaika. Xedapen gehigarri bat erantsi da.

“Xedapen gehigarria

146. artikulua 1. tarifaren arabera, behi, ardi eta ahuntz azienden jatorriaren eta osasunaren gida emateko zerbitzu fakultatiboengatik ezarritako tasaren ordainarazpena deuseztatu egiten da 2002. urtean, betiere gida Administrazio Publikoak ezarritako lan egun eta orduetan ematen baldin bada.”

Hamabi. Xedapen iragankor bat erantsi da.

“Xedapen iragankorra

2002, 2003, 2004 eta 2005. urteetan, Nafarroa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emailearen zerbitzuetarako, 163. artikuluan ezarritako tasak ordaintzeko tarifen gehieneko karga-tasak ondoko hauek izanen dira:

- 1. tarifa, 100eko 2 artekoak.
- 4. tarifa, 100eko 3 artekoak.
- 5. tarifa 6 euro artekoak.
- 6. tarifa, kostuaren prezioaren halako hiru artekoak.

Aipatutako urte haietako bakoitzean aplikatu beharreko karga motak, ezarritako mugaren barrenean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finkatuko ditu.”

10. artikulua. Fundazioen tributu araubidea.

1. Eragina 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietan izanen dutela, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen hurrengo artikulua honela idatziak geldituko dira:

Bat. 22.2 artikulua.

“2. Likidazio oinarri negatiboak hurrengo hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboekin konpentsatzen ahalko dira. Likidazio oinarri negatibo horiek egin izan beharko dute dagokien likidazioa edo autolikidazioa.”

Bi. 39. artikuluari 5. idatz-zatia erantsi zaio.

“5. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 66. artikuluan ezarritako kenkaria diruzko dohaintzei aplikatuko zaie, baldin eta dohaintza horiek ikerketa erakunde publikoetako edo berrikuntza eta teknologia zentroetako jarduerak bezalakoak egiten dituzten fundazioei ematen bazaizkie.”

2. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria honela idatzia geldituko da:

“Laugarrena. Foru Lege honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituzten fundazioei ez zaie aplikatuko bertan arauturiko tributu araubidea, ez eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.d) eta e) eta 173.2.c) artikuluetan aurreikusitako salbuespenak ere.”

11. artikulua. Kooperatiben zerga araubidea.

Eragina 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietan izanen duela, Kooperatiben Zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 21. artikulua honela idatzia geldituko da:

“21. artikulua. Galeren konpentsazioa.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen batuketa algebraiko hori negatiboa bada, kooperatibak kopuru hori konpentsa dezake hurrengo hamabost urteetan sartzen diren zergaldietako kuota oso positiboekin. Kuota negatiboek beharko dute izan egin beharreko likidazio edo autolikidazioaren ondorioa. Konpentsazioa gauzatzen baldin bada, kuota negatiboak dagozkien zergaldiek indarrean segitzen dutela kontsideratuko da, bidezko konpentsazioa kuantifikatzeko soilik.

2. Sortu berriak diren kooperatiben kasuan, aurreko zenbakian aipatzen den konpentsazio epearen kontaketa luzatzen ahalko da kuota positiboko lehenbiziko zergaldiaren hasiera arte.”

12. artikulua. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162. artikulua 1. zenbakia honela idatzia geldituko da:

“1. Zerga ondoko tarifa taularen arabera eskatuko da:

Kuotak:

a) Turismoak:	– 8 zaldi fiskal baino guttiago:	14,01 euro
	– 8 zaldi fiskaletik 12ra bitarte:	39,42 euro
	– 12 baino zaldi fiskal gehiagotik 16ra bitarte:	84,09 euro
	– 16 zaldi fiskal baino gehiago:	105,14 euro
b) Autobusak:	– 21 jarleku baino guttiago:	98,09 euro
	– 21 jarlekutik 50era bitarte:	140,16 euro
	– 50 jarleku baino gehiago:	175,19 euro
c) Kamioiak:	– 1.000 kg. baino guttiagoko karga erabilgarria:	49,10 euro
	– 1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria:	98,09 euro
	– 2.999 kg. baino gehiagotik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria:	140,16 euro
	– 9.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria:	175,19 euro
d) Traktoreak:	– 16 zaldi fiskal baino guttiago:	24,56 euro
	– 16 zaldi fiskaletik 25era bitarte:	49,10 euro
	– 25 zaldi fiskal baino gehiago:	98,09 euro
e) Atoiak eta erdi-atoiak:	– 1.000 kg. baino guttiagoko karga erabilgarria:	24,56 euro
	– 1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria:	49,10 euro
	– 2.999 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria:	98,09 euro
f) Besterik	– Ziklomotoreak	3,54 euro
	– 125 cc.rainoko motozikletak:	5,31 euro
	– 125 cc. baino gehiagotik 250 cc.ra bitarteko motozikletak:	8,78 euro
	– 250 cc. baino gehiagotik 500 cc.ra bitarteko motozikletak:	17,33 euro
	– 500 cc. baino gehiagotik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak:	34,66 euro
	– 1.000 cc. baino gehiagoko motozikletak:	69,32 euro”

13. artikulua. Iruña-Logroño edukiera handiko errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko urriaren 18ko 21/2001 Foru Legearen aldaketa.

Iruña-Logroño edukiera handiko errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko urriaren 18ko 21/2001 Foru Legearen xedapen gehigarria aldatu egiten da eta honela idatzia geldituko da:

“Xedapen gehigarria

1. Emakida hartzen duen entitatea, alde zuzenetik Ekonomi eta Ogasun Departamentuan eskaria eginda, Enpresak Sustatzeko Sozietate-tzat hartuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 167. artikuluko 4. idatz-zatian ezarrikoaren ondorioetarako.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 72. artikulua 3. zenbakian ezarritakoa dela eta, emakida entitateak kuota eskasiarengatik kendu ez dituen kantitateak aplikatzen ahal ditu emakida kontratuak iraun bitartean bukatzen diren zergaldietako autolikidazioetan.

3. Emakida entitateak 100eko 95eko murrizketa izanen du Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren oinarrian, ondoko egintza, kontratu eta eragiketetan:

a) Sozietatea sortu eta kapital gehikuntzak egingean.

b) Emakida eman eta kontratua gauzatzean.

c) Edukiera Handiko Errepidearen emakidan inbertitzen diren diruen maileguak egin eta aldatzean.

d) Aurreko letran aipatzen diren maileguen edozein berme eratu, aldatu eta baliogabetzean.”

Xedapen iragankorrak

Lehen. Sozietateen gaineko Zergan berdintzeko dauden likidazio oinarri negatiboak.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako lehen zergaldiaren hasieran konpentsatu gabe dauden likidazio oinarri negatiboek murrizten ahalko dituzte hurrengo hamabost urteko zergaldietako likidazio oinarri positiboak, zehaztu zireneko zergaldiaren hurrengoaren hasieratik aurrera.

Bigarrena. Aparteko etekinen berrinbertsioa balore eskualdaketan.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan aurreikusitako aparteko etekinen berrinbertsioari atxikitutako errentak (kontuan harturik 2002ko urtarrilaren 1a arte indarra zuen lege horren testua) arautuko dira artikulua horretan eta garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera, nahiz eta berrinbertsioa eta gainerako baldintzak 2002ko urtarrilaren 1etik aurreragoko zergaldietan gertatu.

2. Nahiz eta aurreko idatz-zatian hori xedatu, berrinbertsioa 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldi batean egiten bada, subjektu pasiboak abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 70.bis artikulua aipatu kenkaria egiten ahalko du, baldin eta gerokotutako errenta hori guztia zergaldiko zerga oinarrian sartzen bada.

3. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den zergaldian zerga oinarriaren barnean sartzeko errentak dituzten subjektu pasiboek errenta horiek sartzeko ahalko dituzte, osoak edo hein batean, Zerga hori dela-eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu den lehendabiziko aitortpeneko zerga oinarrian, betiere gerokotze horren arrazoia aparteko etekinen berrinbertsioari atxiki izana izan bada, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan ezarri moduan (2002ko urtarrilaren 1a arte indarra izanen duen testua). Halaber, Foru Lege horren 70.bis artikuluan xedatutako kenkaria aplikatuko zaio, zerga oinarrian sartutako errentengatik.

Hirugarrena. Erregelamendu mailako xedapenen aldi baterako aplikazioa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan.

1. Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez onetsitako Arauen V. tituluko erregelamendu mailako xedapenek indarra hartzen ez duten bitartean, Erabaki horren V. tituluko arauak aplikatuko dira, Foru Lege hau egin aurreko erredakzioarekin, bertan xedatutakoa ezeztan ez badute eta laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

2. Aurreko idatz-zatian hori xedatu arren, Tributuei buruzko Foru Legearen 44. artikuluan eta Oinordetzen gaineko eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan (maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsian) xedatutakoek gobernatuko dute Arau horietako 205. artikuluko peritu-tasazio kontrajarria.

Laugarrena. Likidazioaren ordainsariak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan.

Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez onetsitako Arauen 257. artikuluan aipatu likidazioaren ordainsariak ez zaizkie zergadunei inoiz eskatuko zergaren ordainketa egiten dutenean, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, zerga hori kitatzeko likidazio bulegoetan aurkeztu diren agiri edo aitortpenen gainean.

Dena den, holakoetan eta 2002ko ekainaren 30era bitarte aurkeztu diren agiri edo aitortpenen kasuan, jabetza erregistratzaileen karguko likidazio bulegoek ordainsari horiek jasoko dituzte Ekonomi eta Ogasun Departamentuarengandik.

2002ko uztailaren 1etik aitzina Zerga horren likidaziorako aurkeztu diren agiri edo aitortpenei dagokienez, zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituko zaio, haren kudeaketa eta likidazioari buruzko eginkizunetan.

Bosgarrena. Sozietateen gaineko Zergan konpentsatzeko dauden zerga-kuota negatiboak, kooperatibei dagozkienak.

2002ko urtarrilaren 1etik aurreragoko lehen zergaldiaren hasieran konpentsatzeko dauden zerga-kuota negatiboak konpentsatzen ahalko dira 9/1994 Foru Legearen 21. artikuluan ezarritako epean, hau da, zerga-kuota negatibo horiek finkatu zireneko zergaldia amaitzen denetik aitzina.

BERRIA. Sozietateen gaineko Zergan aplikatzeke dauden kenkariak.

Foru lege honetako VI. tituluko IV. kapituluko kenkariak, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten den lehen zergaldian aplikatzeke daudenak, hurrengo lehen hamar urte jarraietan bukatzen diren zergaldietan aplikatuko dira, kenkaria aplika-

tzeko eskubidea gertatu zen lehen zergaldiaren ondokoa hasten denetik aitzina.

BERRIA. Fundazioen tributu araubidean konpentsatzeke dauden likidazio oinarri negatiboak.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten den lehen zergaldian aplikatzeke dauden likidazio oinarri negatiboak, hurrengo lehen hamabost urte jarraietan bukatzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboek bidez konpentsatu ahalko dira, likidazio oinarri negatiboak gertatu ziren lehen zergaldiaren ondokoa hasten denetik aitzina.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari hamazazpigarren xedapen gehigarria erantsi zaio. Honela dio:

“Hamazazpigarrena. Bikote egonkorrak ezkontideekin parekatzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aplikatzerakoan, bikote egonkorren kideak ezkontidetzat hartuko dira. Haiek ordaindu beharreko zergetan Foru Komunitateak egiten dituen kenkariak Foru Lege horren 4. artikuluan xedatutakoaren araberakoak izanen dira.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriko zenbatekoen aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen zen zenbatekoa handitu da 2.500.000 pezetatik (15.025,30 eurotik) 3.800.000 pezetara (22.838,46 eurora).

Hirugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako moneta-zuzenketa-koefizienteak.

2002. urtean zehar hasten diren zergaldietarako, honako hauek izanen dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako moneta-zuzenketa-koefizienteak:

1983 eta aurrekoak	2,063
1984	1,862
1985	1,736
1986	1,651
1987	1,601

1988	1,535
1989	1,460
1990	1,400
1991	1,350
1992	1,304
1993	1,249
1994	1,199
1995	1,138
1996	1,083
1997	1,058
1998	1,045
1999	1,038
2000	1,033
2001	1,012
2002	1

Laugarrena. Inbertsioetarako Erreserba Berezia.

Subjektu pasiboek dotazioak egiten ahalko dituzte Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. tituluko XI. kapituluko 2. idatz-zatian aipatutako Erreserba Berezirako, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako lehen bi ekitaldietako kontabilitate-etekinen kargura.

Bosgarrena. Berandutza interesak.

2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 50.2.c) artikuluan aipatutako berandutza interesen tasa ehuneko 5,50ekoa izanen da urtean.

Seigarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko testu bategina taxutzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoko 21. artikuluan xedatuaren babesean, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arau indardunak 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen bat egin ditzan, eta bat egitekoak diren lege testuak erregularizatu, argitu eta harmoniza ditzan.

Zazpigarrena. Nafarroako Gobernua baimentzea Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren likidazio eta ordainketa prozedurak, eta kasu bada, autolikidazio araubidea, erregulatzeko.

Nafarroako Gobernuak erregulatzen ahalko ditu Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren likidazio eta ordainketa prozedurak, eta kasu

bada, autolikidazio araubidea. Azken hau ezarzen ahalko da oro har edo kasu berezietarako.

Zortzigarrena. Ekonomi eta Ogasun kontseilaria baimentzea, jabetza erregistratzaileei Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa eta likidazioan eginkizunak eman diezazkien.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariak eginkizunak esleitzen ahalko dizkie Nafarroako Foru komunitateko jabetza erregistratzaileei Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa eta likidazioan. Era berean, hitzarmenak sinatzen ahalko ditu haiekin eginkizun horien gainean.

BERRIA. Sasoikako langileei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko inbertsioengatik pizgarri fiskala.

Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzko Zergako subjektu pasiboek eskubidea izanen dute kuota osoan sasoikako langileei eta haien ahaideei aterpea emateko higiezinak erosi edo egokitzeko zergaldian ordaindutako zenbatekoen 100eko 20ko kenkaria aplikatzeko. Pizgarri hori aplikatuko da baldin eta higiezina subjektu pasiboaren izenean badago nekazaritza eta abeltzaintzako aldi baterako langileei ostatu emateko etxeen sarean. Sare hori maiatzaren 22ko 192/2000 Foru Dekretuak arautzen du.

Subjektu pasiboek kenkaria aplikatzeko eskubidea izanen dute hain zuzen ere higiezina erosteko edo egokitzeko kopuruak ordaintzen dituzten zergaldian. Hala eta guztiz ere, kenkari horren aplikazioarekin lau zati berdin egin eta sortzapena gertatu zen zergaldian eta ondoko hiruetan zati ezberdinetan aplikatuko da. Kenkariaren aplikazioa, lau zati berdinetan, bidezkoa izanen da soilik aipatu higiezinetan sasoikako langileei aterpea ematen zaien zergaldietan.

Horretarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura Departamentuak urtero ziurtagiri bat emanen du, kreditatzeko higiezina subjektu pasiboaren izenean dagoela sarean, higiezinetan sasoikako langileei benetan aterpe eman zaiela eta, halakorik eman bada, higiezinetan egindako obrak direla-eta zenbateko dirulaguntza eman den.

BERRIA. Hidrokarburu batzuen txikizkako salmentaren gaineko zerga.

Foru Komunitatean Hidrokarburu batzuen txikizkako salmentaren gaineko zerga arautzeko xedapenak onetsi arte, lurralde komunean indarra duten arauak aplikatuko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoa ezezten duten xedapen guztiak, maila berekoak edo behegaragoak diren kontuan hartu gabe, eta bereziki honako hauek:

a) Oinordetzen gaineko eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorrak erregulatzeko arauetako atariko tituluaren 2. eta 7. artikulua eta IV. titulua. Arau horiek Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 37. artikulua eta lehen xedapen iragankorreko 2. idatz-zati-ko azken lerroaldea.

c) 166/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, Herrilan Zerbitzuko Kartografi Agiritegian dagoen Foru Komunitateko "Dokumentazio fotografikoaren" salmenta prezioak ezarri eta eguneratzen dituen.

d) 67/2001 Foru Dekretua, martxoaren 12koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kartografia produktuak jendeari saltzeko prezioak onesten dituen.

Azken xedapenak

Lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege honen garapen eta betearazpenerako behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, bertan aurreikusitako ondorioetarako.

Aurreko lerroaldean hori ezarri bada ere:

a) Foru Lege honen 2. artikuluko zortzigarren, hamargarren eta hamabigarren idatz-zatiek 2001eko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

b) Foru Lege honen 7. artikulua aplikatuko zaie 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina sortutako zergagai, deusetan galarazi gabe ez Foru Komunitateko Ogasunaren eskubidea, egun hori baino lehenago sortutako zergagaiak ordainarazteko, aurreko arauak jarraituz, ez Foru Lege honen hirugarren eta laugarren xedapen iragankorretan xedatutakoaren aplikazioa.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	